Alkiza

Katebegi bat euskalduntzearen bidean

Garbiñe Ubeda



Egilea: Garbiñe Ubeda.
Zenbait testu Ibai Lemak, Ainhize Landak eta Ivan Callejok ondutako ikus-entzunezkotik hartuta eta moldatuta daude.
Diseinua eta maketazioa: Zigor Agirrezabala
Azala: Garbiñe Ubeda
Edizio-laguntzaileak: Edurne Ayuso eta Unai Sorarrain
Argitalpena: Alkizako Udala
Inprimatzailea: Delta - Donostia
Lege-gordailua: LGD 0086-2026
ISBN: 978-84-09-90776-2
Lizentziak: Creative Commons Aitortu-Partekatu, argazkiak izan ezik.

2026ko irailean publikatuta.

Liburu hau idazteko egileak Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntza jaso du.

Grinaz

Ikasle gazteak inguru bizi baten bila, jator eta agudo euskalduntzeko. Egonaldia baserrian, eskolak Erretore-etxean.

Profesionaltasunez

Udako euskara barnetegiak llazki euskaltegiaren esku. Lanbidearen profesionaltasuna, militantziaren zentzurik galdu gabe.

Itxaropenez

Euskal giroize barnetegien txanda: dibertituz eta olgetan, haurrak euskarara ekartzeko erronka.

Aurkibidea

(1976–1979) 16/55

(1981–1987) 56/87

(1990–2017) 88/119

Atarikoa

Garbiñe Ubedak dotore eskribitutako liburu honen atariko moduko hau moldatzen paratu naizenean, pentsamendu kontrajarriak izan ditut. Izan ere, alkizarrok barnetegi izenez dazagugun euskara ikasteko ekimen-multzo horrek 50 urte bete ditu aurten eta, aldi berean, neroni 1976an plantatu nintzen lehenengoz Alkizako plazan. Auskalo astroak edo jainkoak akort jarri ziren bi gertakari horiek aldi berean pasatzeko eta, gainera, urrezko ezteiak alkate naizela ospatzea ere. Ohore handia!

Ikuspegi pertsonaletik bi gertaera horiek elkarri lotuta daude. Herritar zaharrenek gogoan izango dute 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Agirre eta Lasarte familiak, Mendiko Etxeren orduko jabeak, maiz etortzen zirela herrira. Agirretarrek, Ramon Agirre aktorearen familiak, Alkizan pasatzen zuten udaren puska handi bat.

1976an hasi ginen Pello eta Martin Agirreren lagun-koadrila *Mendiko etxera* igotzen jai-giroan eta herritar batzuen eskandalurako hain segur, gazte garaian egin behar diren horiek egin genituen eta...

1976an etorri zen Antton Gurrutxaga euskaltzain urgazlea Urruzola baserrira, euskara-eskolak eta baserri-lanak uztartu zituzten haien artean. Antton Donostiako Kimika Fakultatean ezagutu genuen 1975-76 ikasturtean erdaldun huts bezala fakultate jaio berri hartan genbiltzan saltsero euskaltzaleok, baina ikasturte berria urrian hasi genuenean euskaldun peto gisa agertu zitzaigun, hikaz ere egiten zuena. Antton ikaskide, lankide, lagun eta konplize izan dut urte askoan.

Garbiñeri liburua enkargatzearen arrazoiak ez dira gorago aipatu ditudanak, noski. '*Kutsidazu bidea, Ixabel*' ibilbidea gauzatzen hasi ginenean ohartu ginen liburuan Joxean Sagastizabalek kontatzen zuena 48 urte lehenagoko istorioak zirela eta, bi urteren buruan, Alkizako barnetegi deitzen dugun horrek 50 urte beteko zituela.

Ospatu beharreko urteurren biribila. Izan ere, euskara berreskuratzearen historian Alkizak eta barnetegiak toki inportantea dute.

Hamarna milaka lagun izan dira Alkizan euskaraz ikasteko eta hobetzeko aukera izan dutenak, euskal giroa lehen aldiz Alkizan ezagutu dutenak; gehienak EAEko hezkuntza-sistemaren bidez etorritakoak, baina ahaztu gabe Nafarroatik etorritakoak Artelatz elkartearen bidez edo Ilazki euskaltegiak antolatutako udako ikastaroetan parte hartu zutenak. Behin baino gehiagotan esan didate alkizarra naizela adieraztean *'¿de Alkiza? ¡Mi hija/o estuvo estudiando euskera allí! Un pueblo muy bonito'*. Esan daiteke, okertzeko beldurrik gabe, barnetegiak Alkiza munduan jarri duela, eta, seguruenik, Tourrak baino proportzio handiagoan.

Urteurren biribila une egokia da, atzera begiratzeko, gure memoria berritzeko eta euskararen normalizazioan zedarri izan den egitasmoaren historia eta balantzea egiteko. Historia horren protagonista izan diren asko bizirik dira oraindik eta horien lekukotza jasotzea oinarrietako bat izan da.

Esku artean duzun liburua hau eta Mondragon Unibertsitateko Ainhizek, Ibaik eta Ivanek gradu-amaierako lan gisa ekoitzi duten dokumentala dira memoria berritzeko eta historia eskribitzeko lanaren emaitza nagusiak. Espero gustagarriak izango dituzula.

Amaitzeko esker onen partea. Zinez eskerrak Garbiñe, Ainhize, Ibai eta Ivan egin duzuen lanagatik. Esker mila alkizarrei zuen memoriak konpartitzeagatik eta material asko gure esku jarri duzuelako. Argazki eta bestelako materialen atalean esker bereziak Agurne, Ana eta Takolori. Ilazki euskaltegiak ere material asko utzi digu eskuzabalki, merzi. Azkenik, baina ez atzenputz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza nagusiari eskerrak eta graziak, proiektuaren egokitasuna hasiera-hasieratik ikusi zuelako eta Garbiñe lanean jartzeko funtsak jarri dituelako.

Utzi gaituztenak ez ditut ahantziko. Hiru urte dira Joxe Agirre, *Joxe Alkiza*, 1976an Alkizako erretore zena joan zela. Hark meza nagusian pulpitutik eginiko predikuak lagundu zuen baserritarrek kalekume haiek etxean hartzeko izan zitzazketen erreparoak uxatzen eta beren etxeen ateak irekitzen. Hiru urte,halaber, Imanol Lizardi heriok gazte eraman zuela. Alkizara Euskal Girotze Barnetegiko irakasle gisa etorri, herrian errotu eta Alkizako herri-jarduera askoren bultzatzaile eta ezinbesteko perrexil bihurtu zena. Eskerrak zuei ere, zuen ekarpena barnetegiaren historia eraikitzeko ezinbestekoa izan delako!

Edurne eta Unai lankide prestuen lanik gabe ez nukeen lerro hauek eskribitzeko aukera izango: biba zuek!

Inaki Irazabalbeitia Fernandez
Alkizako alkatea

Herri bat euskararari emana

Garbiñe Ubeda

Francoren heriotzak askatasun grina guztiak jarri zituen dantzan. 1975. urtearen hondarrean izan zen gertaera sonatu hori, zehazki azaroan, eta aldaketarako erauntsi hura 1976an loratu zen indar betez. 40 urteko hertsikeria eta gero, dena zegoen egiteko eta denek nahi zuten egin, bereziki gazteek. Behar zen aire berrietara zabaldu, ideologietan sakondu, herri askeago bat eraiki. Eta behar zen, gainera, nortasun ukatua azaleratu, inposatutakoari muzin egin, sustraietatik edan, galdutako denbora berreskuratu. Finean, lozorrotik atera eta natural izateko bidea aurkitu.

Gaur ezagutzen den lurralde konfigurazioa erabakitzeke zegoen oraindik. Artean, ez zen Euskararen Legerik, ez estatuturik, ez hizkuntza profilik, ez eta autonomia erkidegorik ere. Eta ikurrina ikusi nahi zuenak Ipar Euskal Herrira joan behar izaten zuen, hura erakustea ez baitzen libre Bidasoaz honantz. 1976an ohiko estanpa izaten zen polizia ekitaldi eta jaialdi oro zapuzten ikustea, baten bat oholtzan edo ikus-entzuleen artean hura haizatzen ariko zen aitzakian. Ofizialki, 1977an legeztatu zuten ikurrina Hego Euskal Herrian, aski egur eman eta gero.

Garrantzitsua zen sinbologia, eta are garrantzitsuagoa hizkuntza. Herri nahiak borbor egiten zuen hartan, ez zitekeen Euskadi hiru lurralde historikoen esparru administratibora murriztuta imajinatu, eta are gutxiago Euskal Herria euskararik gabe. Euskarak garrantzi kapitala zuen herri amestu horretan, eta sinesten ez duenak begira biezaio urte hartan plazaratu eta barra-barra saldu ziren diskoei. Euskaraz kantatzea ezinbesteko baldintza zen. Baina euskaraz kantatzeaz harago, aldarrikatu egiten zen euskara: «Zazpi Euskal Herriek bat egin dezagun, guziok beti-beti gauden gu euskaldun», zioen Urkok; «Araban bagare, Gipuzkun bagera, Xiberun bagire ta Bizkaian bagara», berriz, Gontzal Mendibil eta Xeberri bikoteak. Bazen bestelako dei esplizitu bat ere, jendea euskalduntzera bultzatzeko eta erabilera sustatzeko, hizkuntza nortasunaren

parte sentitzeko. Giro eta tonu ezin baikorragoz egiten zen gainera, «Ni naiz, hi haiz, hura da, gu gara...», «Guk euskaraz, zuk zergatik ez» eta gisako kantuek erakusten dutenez.

Esan gabe doa gazte askok jo zutela begiz erronka hura. Ez baitezpada euskaraz ez zekitenek bakarrik. Baita euskaldun petoek ere. Batetik, ezinbesteko jotzen zutelako haien hizkuntzan alfabetatzea, euskara «putzu sakon eta ilunetik» atera eta «plazara jaldi» zedin. Baina, bestetik eta batez ere, euskalduntze prozesuan lagundu nahi zutelako. Eta horretan den-denen beharra zegoen. Adin batetik gorako euskaldun gehienek eman zuten gaztetan ikastaroren bat, eskolaren bat, ordezko saioren bat, irakasle izateko bokaziorik edo ikasketarik ez izanda ere.

Punk mugimenduak jarri zuen bogan *Zerorrek egin* filosofia. Baina horretatik askotxo zuen urte haietako euskalduntze nahiak ere. Pitaka-pitaka, Euskal Herri osoa hartuko zuen mugimendu ia sinkronizatu bat sortzeraino oparotu zen gogo hura: gau eskolak eta talde espontaneoagoak sortu ziren han-hemenka. Eskaera uholdeari aurre egin ahal izateko, alfabetatze ikastaro azkarrak eratu ziren, euskara ikasteko metodoak ondu zituzten eta Euskaltzaindiaren D titulua lortzeko azterketek gainezka egiten zuten, euskara ikasi nahi zuen jendearen eskaerak ere gainezka egiten zuen bezala.

Euskaraz bizi ahal izateko oinarria albait agudoen eta ondoen lortu nahiak irudimena zukutzera eta molde berri bat sortzera eraman zituen ikasle eta irakasle horietarik batzuk. Halaxe sortu zen Alkizara etorritako lehen 'kolonoek' baliatu zuten modalitatea: euskara ikasleak laguntzaile lanetan jarriz, baserri banatara bidali hiru asterako, udan; eta horren osagarri, goizetan eskolak hartu, ikasketa akademikoagoa ere bermatzeko. Alkizan Joxe Agirre apaiza izan zuten horretarako aliatu nagusia. Eskolak hartzeko toki bat eskaini zien hark, Erretore Etxean berean. Baita bitartekari lanak egin ere, baserritarren eta ikasleen artean. Abentura horri eskainia da liburu honen lehen zatia. Euskara ikasteko irrika baldintzagabeak ezaugarritu zituen ikasle horiek guztiak, eta halakoxe izena hartu du liburuan haien bizipenak batzen dituen atalak ere: GRINAZ.

Ekinaldi gogotsu horri asmo egituratuago batek hartu zion erreleboa; Alkizaren kasuan, Ilazki euskaltegiak. Aurrerantzean, baserrietako banakako egonaldien formula bazter utzi eta barnetegiak eskainiko zitzaizkien ikasleei, taldeka. Erretore Etxea izan zuten egoitza, Otsamendi ostatua otorduetako

toki eta herriko plaza zein bailara osoko festak mintza praktikarako inguru.

Ez zen aukera makala: punta-puntako akademia bat, landa eremu erabat euskaldunean txertatuta. Eta, gainera, dibertimendua eta harreman estuak, festak eta lagunak. Bide batez, turismoa Gipuzkoa barnealdean barrena. Hori guztia, euskaraz biziz. Eta kasik 24 ordutako zerbitzua emanez. 1981ean hasi eta 1989ra arte, ehunka ikaslek hobetu zuen beren euskara maila Alkizan, Ilazki euskaltegiko irakasleen eskutik. Orduan protagonista izan ziren horien bizipenak PROFESIONALTASUNEZ izenburupean datoz liburuan. Baina bada beste hitzik ere aldi hura —bai eta aurrekoa ere— izendatzeko: militantzia. Militantziarik eta helburua erdiesteko sinesmenik gabe ez baitzatekeen posible izango lortu zenaren erdia ere lortzea. Ez zegoen titulazioa lortzeko horrenbesteko presiorik. Bai, ordea, urrun iristeko ametsa.

1990ean bide berri batetik jo zuen Alkizak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailetik iritsitako proposamen bati baiezkoa eman ostean, helduen barnetegi zirenek umeen euskal girotze barnetegiei eman zieten pasoa, eta, hala, jolasak eta algarak jabetu ziren herriko plazaz, ostatuaz eta Erretore Etxeaz. Bestelako abantailarik ere bazuen bide berriak: eskaria ez zen udako bi hilabeteetara mugatzen, eta etekin hobea ateratzen zioten tokiari nola alkizarrek hala ikasle eta irakasleek ere. Hego Euskal Herriko bazter askotatik heldu ziren taldeak, gehienetan ingurune soziolinguistiko erdaldunetako B ereduko ikaslez osatuak. Haur haiek euskarara ekartzeko esperantzan eta dibertitzeko xedez, ahaleginak eta bost egin zituzten arduradunek, umeekin etorritako irakasleek, bertako monitoreek, zaindariek eta proiektuan lotu zen orok. Horri begira, ITXAROPENEZ izenburuaren pean batu dira garai hartako lekukotzak.

Estimatzen da guztira 800-900 ume heldu zirela Alkizara, 1990. urtean hasita. 25-30 laguneko taldeetan heltzen ziren, eta Eleni Saizarren harrera beroaren ostean, Agustin Mujika *Takolo*, Agurne Eizagirre eta Imanol Lizardiren eskuetan jartzen ziren elkarrekin inoiz ez bezala dibertitzeko, euskaraz.

2017an euskal girotze barnetegien eskaintza eten behar izan zuen udalak, herriko eskola Erretore Etxera aldatzeko bolada baterako. Esan liteke orduantxe amaitu zela Alkiza euskalduntzearen bidean katebegi bihurtu zuen amets hura. Ez beharbada betiko.

Liburu honek ibilbide horren lekuko xumea izan nahi du. Prozesu osoan aldez edo moldez protagonista izan ziren guztiei ahalegina aintzatesteko eta esker ona erakusteko helburuz egina dago.



Grinaz

(1976–1979)

Ikasle gazteak inguru bizi baten bila, jator eta agudo euskalduntzeko. Egonaldia baserrian, eskolak Erretore-etxean.



Luispe Gutierrez

«Gure jarrera grinatsuari esker, Alkizan euskara balioesten lagundu genuela uste dut»

«On Joxerekin hitz egin nuen eta ideia polita iruditu zitzaion Orexan egiten zena Alkizan ere egitea. Hala, Alkizan ere klaseak ematen hasi ginen»

Motibazioak daukan ahalaren ispilu garbiak dira Luispe Gutierrez eta Iñaki Orbegozo donostiarrak. 1974-1975eko ikasturtean, 17 urte inguru zituztela euskalduntzeko erabaki irmoa hartu zuten eta ikasteari ekin zioten buru-belarri. Jokin Aldazabal adiskidearen laguntza izan zuten. Hura artean euskaldun alfabetatugabea zen, baina halakoxea zen garai hartako premia. 1975eko udan, Orexako barnetegian eman zuten izena Orbegozok eta Gutierrezek. Metodo aproposa iruditu zitzaien, eskolak eta mintza praktika erreala uztatzen baitzituen inguru erabat euskaldun batean. Ondo baino hobeto joan zitzaien, urtebeteren burua ikasle izatetik irakasle izatera pasatu baitziren. Hurrengo urteko abuztuan, Alkizako lehen barnetegian aritu ziren eskolak ematen. Orbegozoren eta Gutierrezen ibilbidea bertsua izanik, bien ahotik mintzatu da Gutierrez elkarrizketa honetan.

1976an heldu zinen Alkizako barnetegira, irakasle gisa. Nolatan?

1975ean euskara klaseak hartzen hasi ginen. Goizero-goizero, Koldo Lopez Luzuriaga pasaitarrarekin biltzen ginen. Hura zen, hain zuzen, Orexako barnetegiaren arduraduna. Urtebete eskasera, galdegin zidan ea bere lekukoa hartzeko prest ote nengokeen, non eta euskara ikasten aritu nintzen tokian, Orexan. Gazteak ginen, eta baietz esan nion berehala. Garaitsuan, Iñakik eta biok jakin genuen bazegoela Alkizan apaiz euskaltzale bat, hain zuzen On Joxe. Harekin hitz egin nuen eta ideia polita iruditu zitzaion Orexan egiten zena Alkizan ere egitea. Hala, Alkizan ere klaseak ematen hasi ginen.

Nolakoa izan zen Orexako esperientzia?

Ikasle bakoitza baserri banatan izaten ginen. Garai hartan hamabi edo hamahiru izango ziren, eta batean izan ezik, gainontzeko guztietan morroi bat hartzeko prest zeuden. Goizetan klaseak izaten genituen, 9etatik 13:00eta, Orexako areto batean. Eta arratsaldean baserrian laguntzen aritzen ginen, nor bere baserrian.

«Apaizak meza bateko sermoian eman zuen gure asmoaren berri, eta baserritarrak jendea hartzera animatu zituen. Horretarako, plan bat asmatu zuen: guk, baserriko lanetan laguntzeaz gain, bertako semeari edo alabari eskolako jardueretan lagunduko genien egunero-egunero bi bat orduz. 14 bat baserri sartu ziren plan hartan»

Oso ideia ona iruditzen zitzaigun denoi, eta metodo hori zabaltzen saiatu ginen. Halaxe heldu ginen On Joxerengana. Gerora jakin genuenez, meza bateko sermoian eman zuen asmoaren berri, eta baserritarrak jendea hartzera animatu zituen. Horretarako, plan bat asmatu zuen: guk, baserriko lanetan laguntzeaz gain, bertako semeari edo alabari eskolako jardueretan lagunduko genien egunero-egunero bi bat orduz. Gauzak horrela, 14 bat baserri sartu ziren plan hartan.

Oso kalekumea al zinen?

Halakoxea nintzen, bai. Donostiarra. Gainera, nire familia guztia kanpokoa zen: aitaren aldetik, Segoviakoak; eta amaren aldetik, aita Jaengoa, eta ama, getariarra, baina haren ama bertara etorritako katalan batekin ezkondu zen. Beraz, ia peninsula osoko odola daramat nik.

Nolakoa izan zen Alkizako hastapena?

Bi talde sortu genituen. Talde bat Iñakik eramaten zuen, eta bestea nik. Apaiza ere azaltzen zen azken orduan, eta kantaren bat edo beste hartu, hitzak aztertu eta kantatu egiten genuen egunero. Orexan bezala funtzionatzen genuen, goizean klasea eta arratsaldean norbere baserrira lanera.

Zer-nolako klaseak izaten ziren? Bazenuten gramatika-libururik? Nola prestatzen zenituzten klaseak?

Normalean gramatika atal bat hartu, eta haren inguruko ariketak egiten genituen; edota gai bat atera, eta elkarrizketak asmatzen genituen galderak eginez. Eta noski, garai hartako euskal abeslarien kanta guzti-guztiak buruz ikasten genituen. Lete, Lertxundi, Laboa eta enparauak gurekin aritzen ziren klasean. Bertso zaharrak ere ikasten genituen. Hori guztia oso ondo atera zen Alkizan, jendeak bazuelako maila bat, eta batez ere, euskara ikasteko izugarrizko gogoa. Esango nuke urte hartan Alkizan bildutako guztiek gaur egun ere euskaraz hitz egiten dugula. Ez da marka makala. Haietako gehienek garai hartako D Titulua atera zuten handik aterata.

Maila jakin bat eskatzen zenuten?

Baserri batera joateko, bai. Ezin duzu hutsetik hasi. Hara joan aurretik urtebeteko ikastaro trinko bat hartzea komeni zela esaten genuen.

Gogoan dut, hurrengo udarari begira, 1977. urterako, Orexan eta Alkizan ez ezik Hernialden eta Berastegin ere lotu genituen baserri batzuk, kalekume erdaldunak har zitzaten. 35 bat baserri lortu genituen guztira. Hori dela eta, iragarki bat jarri genuen Herri Irratian eta ia 100 lagunek eman zuten izena. Hortaz, haien artean nolabaiteko hautaketa bat egin behar izan genuen, azterketa moduko baten bidez. Zoritxarrez, bi heren utzi behar izan genituen kanpoan. Oso penatuta gelditu ginen, bai gu, bai eta tokirik lortu ez zuten horiek ere.

«Esango nuke urte hartan Alkizan bildutako guztiek gaur egun ere euskaraz hitz egiten dugula. Ez da marka makala. Haietako gehienek garai hartako D Titulua atera zuten handik aterata»

Sartu zirenen artean, Joxean Sagastizabal zegoen, *Kutsidazu bidea, Ixabel* liburuaren egilea. Hura Hernialden ibili zen, eta liburuan kontatzen duen bezala, Alkizara igotzen zen egunero, oinez, eskolak jasotzera. Urte hartako irakaslea aurreko urtean gurekin ibilitako ikasle bat zen: Koro Garmendia.

Zer adin zenuen?

Hemezortzi urte. Filologia Hispanikoa estudiatzen hasi berria nintzen Orexara euskara ikastera joan nintzenean, eta Iñaki Orbegozo, nirekin Alkizan irakasle ibilitakoa, Historian ari zen. Nik Filologiako eta hura Historiako bigarren urtea bukatu berria genuela, Alkizara joan ginen, irakasle.

Donostian Jokin Aldasororekin ikasten genuen euskara. Hura ere Filologia Hispanikoa ikasten ari zen, klase berean ginen. Oso gazteak ginen denak.

Ba al duzu anekdotarik gogoan?

Baserriko konturen bat. Gogoan dut ni izan nintzen baserrian, Leten, ez zela komunik ni iritsi nintzenean. Gaur nekazal turismoko etxea da Lete, baina orduan komunik ere ez zegoen. Beno, bazegoen, baina ukuiluaren gainean zulo bat. Ni hara iritsi eta bi astera jarri zuten komuna.

Ordurako, baserri mundua behera etortzen hasia zen. Leteko seme zaharrena, nire adinekoa zena, Anoetako edo Irurako tailer batean zebilela uste dut, mekaniko gisa. Alaba ere kanpoan zebilen lanean, taberna batean. Beste bi semeak oso gazteak ziren orduan, baina ez zuten baserrian gelditzeko asmo handirik. Gazteenak artzaina izango zela esaten zuen garai hartan. Ez dakit asmo hori bete ote zuen.

Oroitzapen onenetako bat asteburuetakoa dela esango nuke, festarik festa ibiltzen baikinen. Bailarako hainbat jai ezagutu genituen, eta ederki pasatu genuen.

Halako festa egun batean, gogoan dut baserriko seme zaharrena etorri zitzaidala gelara, gau-pasa eginda. Goizeko 5etan oheratu nintzen ni, baina jaikiarazi eta Herniora igo ginen biok bide zuzenetik. Leher eginda bukatu nuen, baina erronkari eutsi nion nola edo hala. Beharko.

Bestelako lanik egiten zenuen baserrian?

Arratsaldeetan, siesta garaian, eskolako lanetan laguntzen nion etxeko bigarren semeari. Tira, esanera da, biok ere nahiko alfertuta egoten baikinen

ordu horretan. Nahiago izaten genuen kontu kontari aritu eskolako lanetan aritu baino, eta ez dut uste nire laguntzaren falta sumatuko zuenik hurrengo ikasturtean.

Etxeko nagusiarekin ere denbora asko ematen nuen. Arratsaldero, harekin eta bi seme gazteenekin aritzen ginen baserriko lanetan: ukuiluan azpiak atera, belarra batu, patatak bildu.... Kalekumea izanik, ez nintzen oso iaioa lan horietan, baina Orexako esperientziari esker ohituta nengoen, eta ongi etorri zitzaidan nagusiarekiko harremanean.

Hurrengo urteko udazkenean hil zen gizajoa. lanean ari zela bihotzekoak jota.

Etxekoandrea oso jatorra zen, hizketarako pronto egoten zen beti, eta oso ondo tratatzen ninduen. Egia esanda, oso erraza egin zitzaidan Alkizako Lete baserriko egonaldia.

Harreman estua izan zenuten, beraz.

Bai, etxekotzat hartzen gintuzten. Guk, berriz, jakin-min handia pizten genien haiei. Donostiarrak ginen, eta harrigarria egiten zitzaien halako herri txiki batera joatea; zer, eta euskara ikastera, gainera.

Urrutikoa beti hobea?

Garai horretan ez zuten gaur bezainbeste balioesten euskara. Haien hizkuntza zen, zalantzarik gabe, baina ez dut uste askoz ere gehiago zenik.

Guk, euskara ikasteko erakusten genuen jarrera grinatsuari esker, Alkizan euskara balioesten lagundu genuela uste dut. Aldiz, Orexan harroago zeuden euskaldun izateaz. Bazeramatzaten bospasei urte euskara ikasi nahi zuen jendea uda oro hartzen, eta horrek izango zuen eraginik.

Balentria handia izan zen zuena.

Bai. Baina nik ordu asko sartzen nituen. Karreran baino ordu gehiago sartzen nituen euskararen ikasketan. Orain ez bezala, motibazio handia zegoen orduan. Nerabezaroan aldatu nuen pentsamoldea, ordura arte euskara ez baitzen existitzen niretzat. Eta Donostian ere ez zen euskara askorik entzuten, ez behintzat nire inguruan.

Iñaki Orbegozo

«Patri Urkizuk gure euskaltzaletasuna berpizten lagundu zigun»

Azpimarragarria da zein abegikor hartzen gintuzten baserrian, gu bezalako urbanita jendearen laguntzak ezer gutxirako balioko ziela jakinda ere.

Eta nabarmentzekoa da, era berean, gure arteko kultur talka ere: haien euskara eta guk ikasitakoa zeharo desberdinak ziren, eta hortaz konturatzea ez zen erraza. Arazo hori ederki deskribatzen du Joxean Sagastizabalek bere *Kutsidazu bidea, Ixabel* liburuan.

Nik Burgoskoa nuen ama. Aita donostiarra zen, eta txikitan euskaraz bakarrik hitz egiten omen zuen. Baina eskolak eta gerra garaian kanpoan pasatutako urteek hizkuntza ia galtzera eraman zuten. Oso mingarria egiten zitzaion hori, eta bere kabuz ikasten saiatzen zen, etxean zeukan liburu baten laguntzaz.

Bestalde, ezin aipatu gabe utzi Patri Urkizu. Gure euskaltzaletasuna berpizten lagundu zigun, oso garrantzitsua izan zen horretan. Mundaiz ikastetxean izan ginen ikasle, eta han ez zen euskara existitzen. COU mailan ginela [batxillergoko azken urtea], euskara ikasteko talde bat sortu eta irakasle bila hasi ginen. Gure lagun Manu Adrianek esan zigun bere koinatu bat prest zegoela horretarako eta oso euskaltzalea zela. Patri Urkizuri buruz ari zen. Mundaizeko zuzendariari baimena eskatu genion, eta halaxe hasi zen eskolara etortzen guri klaseak ematera. Irakasle zoragarria izan zen, benetako jakintsua eta umore finekoa. Klase guztiak abesten bukatzen genituen. Eta ez zuen ezer kobratzen.

Aitor dut nire euskaltzaletasuna hari zor diodala neurri handi batean. Ezin izan genuen irakasle hoberik eduki.

Jokin Aldazabal

«Jendeari maila minimo bat eskatzen zitzaion, baserriko egonaldia ondo aprobetxatzeko»

Kazetari entzutetsua izan da Jokin Aldazabal, ofizio horretara «kasualitatez» iritsi bazen ere. Urterik gehienak Donostiako Herri Irratian eman zituen esatari gisa, eta Euskadi Irratiko kolaboratzailea ere izan zen; bertan, naturari eskainitako *Ekosfera* saioa gidatu zuen hamar urtez.

Larraulen sortu zen, 1956an, Beobideburu etxean. 1964an, zortzi urte zituela, Lasarte-Oriara aldatu zen familia osoa, eta handik gutxira Donostiako Mundaizen eskolatu zen, korazonistekin. Kazetaritza ikasketak egin baino lehen Euskal filologia ikasi zuen lehendabizi, eta euskara irakasle gisa aritu zen lanean. Euskara ikasleak baserrietara eraman zituen mugimenduaren parte izan zen.

70eko hamarkadan euskara talde bat sortu zenuten Donostian. Zein zen testuingurua?

1973an izango zen. Giroa erdalduna zen, baina baginen taldetxo bat euskararen inguruan kezkatu samar zebilena. Mundaizko eskolako jendea ginen. Han, klasean euskalduna zein zen ere ez zenekien, gerora jakin genuen hori. Hala eta guztiz ere, aldizkaritxo bat egin genuen, eta horrek zenbait mendeku ekarri zizkigun praileen aldetik. Eta lehenego euskarazko klaseak ere antolatu genituen.

Zuen artean?

Lehen irakaslea Patri Urkizu izan genuen; ikaskide baten koinatua zen. Neronek ere ematen nituen klaseak, nahiz eta artean alfabetatu gabea nintzen. Irigarai delako baten metodoa erabiltzen nuen.

«Niri gogorra egiten zitzaidan Patri Urkizurekin klaseak hartzea. Pentsatu Larraulgo baserri batetik etorritako batentzat zer zen h-a eta hori guztia. Nolabaiteko errebeldia sortzen zitzaigun, edo onartu ezin bat»

«Jendeari maila minimo bat eskatzen zitzaion, baserriko egonaldia ondo aprobetxatzeko. Azterketak Jesuiten lokal batean egiten zirela uste dut, eta han egingo genuen hautaketa, baina ez naiz gogoratzen»

Aldamenekoa euskalduna ote zen jakin gabe, bitxia izango zen taldeak antolatzea.

Polita zen. Francoren azken urteak ziren, eta gu ere adinean ginen. Badakizu, errebeldia, kontra egitea, kontu horiek. Dozena erdi bat ikasle izaten ginen.

Niri gogorra egiten zitzaidan Patri Urkizurekin klaseak hartzea. Pentsatu, Larraulgo baserri batetik etorritako batentzat zer zen h-a eta hori guztia. Nolabaiteko errebeldia sortzen zitzaigun, edo onartu ezin bat. Orain ere antzeko mugimendua ikusten da, norberak bere etxeko euskara defendatzen du.

Non egiten zenituzten klaseak?

Urkizurekin Mundaizen ematen genituen klaseak, baina kuadrilla mailan aritzen ginenean pisu batean biltzen ginen.

Eta hortik Gipuzkoa barnealdera, baserrira?

Zenbait lagun hasi ziren Orexara joaten. Hura Pasaiako tipo batek antolatzen zuen: Koldo Lopez Luzuriagak. Garai hartan Suchardten ari nintzen lanean, Benta Berrin. Gaueko txandan aritzen nintzen, Sugus goxokiak egiten.

Edonor joan zitekeen baserrira?

Jendeari maila minimo bat eskatzen zitzaion, baserriko egonaldia ondo aprobetxatzeko. Azterketak Jesuiten lokal batean egiten zirela uste dut, eta han egingo genuen hautaketa, baina ez naiz gogoratzen. Hortik aurrera, bisitak egiten nizkien.

Joxean Sagastizabal [idazlea, *Kutsidazu bidea, Ixabel* eleberriaren egilea] topatu nuen batean esan zidan ni izan nintzela hari galdetu ziona Alkizara baserri batera joan nahi ote zuen. Ez daukat halako oroitzapenik.

Dakidana da nire opor ederrenak egin nituela Alkizan. Goizean lo egiten genuen, arratsaldean palan jokatu eta gauean tertulia literarioa. Gogoan dut behin Juan Garziarekin aritu ginela. Garai hartan filologia ikasten ari nintzen. Alkizan lagundu egiten nuen, baina ez nintzen irakasle aritu.

Irigarairen metodoa aipatu duzu. Zein zen metodo hori?

Euskara hire laguna zuen izena. Liburu ona zen, eta bere barruan zeuzkan oharrak Euskaltzaindiaren mailakoak ziren. Gero Deustuko Unibertsitateko Hizkuntza Eskolan hasi nintzen, Patxi Goenagarekin. Alfabetatze eskolak ere ematen ziren han, eta esperientzia zoragarria izan zen. Patxik gurekin probatzen zituen gauzak klasean, eta guk ekarpenak egiten genizkion. Gero langintza horretarako fitxatu ninduen Goenagak, eta urte pare bat eman nituen. Garai hartan D mailako irakasle titulua ateratzeko eskolak ematen ziren eta morfosintaxiaren praktika erakusten nuen nik.

«Dakidana da nire opor ederrenak egin nituela Alkizan. Goizean lo egiten genuen, arratsaldean palan jokatu eta gauean tertulia literarioa. Gogoan dut behin Juan Garziarekin aritu ginela»

Toti Martinez de Lezea

«Aparteko klaserik ez nuen hartzen baserritik kanpo, eta ez nuen gauza handirik ikasi»

Osaba baten laguntzaz heldu zen Toti Martinez de Lezea idazlea Alkizara. Hamazazpi urte besterik ez zuen, eta euskara ikasteko grina ikaragarria. Herrigunean berean egin zuen egonaldia, Fidel aulkigilearen eta haren alaban Ixabelen etxean, baina ez zuen aparteko eskolarik hartu, eta horrek herren utzi zituen bere euskalduntze asmoak. Guztira sei hilabete inguru egin zituen bertan.

Nolatan Alkizan?

Banuen osaba bat Tolosan. Hark lortu zidan tokia. Oker ez banago, alokairu moduko bat ordaintzen zion nagusiari, ni baserrian har nintzaten. Viviano Larramendi zuen izena nire osabak eta ginekologoa zen Beasaingo San Migel klinikan.

Zer egiten zenuen baserrian?

Gauza handirik ez. Erniora gora eta Erniora behera ematen nituen egunak. Etxean laguntzen nuen, baina gauza handirik ez zegoen egiteko. Eta zer besterik? Adibidez, euskaraz irakurri, eta Loiolako Herri Irratiari arreta jarri. Benito Lertxundiren abestiak ere entzuten nituen, eta abestien hitzak itzuliz ikasten nuen. Nagusiarekin eta alabarekin, berriz, justuko hitzak izaten nituen:

«Orain dela 60 urte izan nintzen Alkizan. Artean Franko bizi zen, eta euskaraz ikastea ez zen erraza»

«kaixo», «zer moduz», «ondo» eta antzeko gauzak besterik ez. Aparteko klaserik ez nuen hartzen baserritik kanpo, eta ez nuen gauza handirik ikasi. Gainera, ikaragarri aspertu nintzen.

Alkizara iritsi baino lehen euskara ikastean aritua zinen?

Orain dela 60 urte izan nintzen Alkizan. Artean Franko bizi zen, eta euskaraz ikastea ez zen erraza. Apaiz batekin hasi nintzen ikasten, Gasteizen. Poliziarengana joan behar izan nuen azalpenak ematera, «vascuencea» zergatik ikasi nahi nuen esplikatu behar izan nien. Hizkuntza gustuko nuela esan nienean, haiek «zergatik ez frantsesez, adibidez?», bota zidaten. Eta ari nintzela hori ere ikasten, nik.

Apaizarekin egin nuen ikastaroa aste batzuetako kontua izan zen, Ingalaterrara joan bainintzen jarraian. Itzulitakoan, aitari esan nion euskara ikasi nahi nuela, eta hark osabarekin hitz egin zuen.

Inor ezagutu al zenuen herrian, zure baserriko nagusiez gain?

Ez nuen inor ezagutu, ez. Zaharrekin hitz egin beste aukerarik ez nuen. Gero Alemaniara joan nintzen, eta ondoren atzera berriro Ingalaterrara. Bilboko mutil batekin ezkondu nintzen eta elkarrekin Frantziara joan ginen. Lau urtez bizi izan ginen han.

Euskal Herrira itzuli ginenean oso garbi geneukan herri euskaldun batean jarriko ginela bizitzen, gure umeengatik. Senarra Basaurin aritu zen lanean, eta Larrabetzu aukeratu genuen.

Gure haurrak euskaldunak dira, noski. Senarrak ulertzen du, baina ez du hitz egiten. Eta nik ez dut arazorik ulertzeko eta irakurtzeko. Hitz egin ere egiten dut, baina Arapahoe indiarrek ingelesa egiten zuten moduan. Oso zailak dira aditzak, Penagarria da nire *Nor-nori-nork*.

Hor dago zailtasuna?

Nire arazoa mintza praktika da, eta zergatik? Ez dudalako hitz egiteko benetako aukerarik. Nire mintza praktika kalean izaten da, baina oso murritza da: «kaixo, zer moduz? familia ondo?, bai ederki. Euria egingo ote du? Bai», eta kito. Besterik ez dut egiten.

Joxean Sagastizabal

«Ikasi? Baserrian? Ezertxo ere ez»

Euskaldunen artean inor gutxi izango da Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea Ixabel* ezagutzen ez duenik. Hernialdeko Arriaga baserrian bizi izandako abenturak eta kalenturak kontatu zituen bertan; 1992an eman zuen argitara. Eleberriak erdietsitako arrakastaren seinale, hura oinarri duen antzezlan bat izan zen gero, baita film bat ere. Egonaldi hartan, Sagastizabalek Alkizan hartzen zituen goizeko eskolak.

Nondik nora piztu zitzaizun euskara ikasteko irrika?

Oso ona naiz hizkuntzetan, banintzen behintzat. 17 urterekin Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikastera joan nintzen Bilbora. Amaren gonaren azpitik atera berria nintzen. Berandu heldu nintzen, mundua deskubritzearen zentzuan.

Urtebete egin nuen han. Deustuko unibertsitatean, euskararik ez, karrera zen espantu bat, munduko gauzarik itsusiena, eta hasi nintzen Koldo Zuazo eibartarrarekin euskara ikasten, *Euskalduntzen* metodoarekin. Euskaldunen semea naiz. Gurasoek ondo zekiten euskaraz, baina lotsarazi zituzten eta ez ziguten egiten.

Bestalde, Deustun Ruper Ordorika neukan aldamenean, 510. gelan. Egun osoa ematen zuen gitarrarekin pelmada ematen. Beraz, *Oñatiko mafia*-rekin egoten nintzen.

«Deskubritu nuen bazegoela jendea nire gurasoen hizkuntza hori erabiltzen eta aldarrikatzen zuena, eta aspaldi egiten ez nuen memoria ariketa bat egiten hasi nintzen: txikitandik nekizkien euskal hitzak ekarri nituen gogora»

«Baserrian, semealabekin eta amarekin moldatzen nintzen, baina aitari, Frantzisko Leundari, ez nion tutik ulertzen. Eta handik zazpi urtera gauza bera gertatu zitzaidan nire andrearen aitarekin, baina ordurako euskara irakaslea eta idazlea nintzen!»

Euskara ikasteko grina piztu zizuten?

Deskubritu nuen bazegoela jendea nire gurasoen hizkuntza hori erabiltzen eta aldarrikatzen zuena, eta aspaldi egiten ez nuen memoria ariketa bat egiten hasi nintzen: txikitandik nekizkien euskal hitzak ekarri nituen gogora. Zeren eta, gurasoek gaztelaniaz egiten ziguten, baina hitz solte asko esaten ziren euskaraz, guk jakin gabe euskara zela: «*ponte el txano*» esaten genuen, edo «*vengo mela-mela*».

17 urterekin perspektiba aldatu zen, eta horrekin batera tiroak hasi ziren.

Nire inguruan, militanteak agertzen hasi ziren handik eta hemendik; militanteak eta besteak. 18 urterekin asignatura guztietan ibili nintzen gaizki. Erabateko porrota zen hori aitarentzat.

Unibertsitatea utzi zenuen?

Handik Donostiara aldatu nintzen, EUTGra, eta han, lehen ikasturtea errepikatu nuen eta euskara ikasten hasi nintzen. Bigarren urtean nintzela, neska bat agertu zitzaigun, esanez euskara klaseak ari zirela antolatzen. Hantxe izena eman eta Ramon delako batekin hasi nintzen ikasten, Astigarragakoa zen, oso tipo ezaguna giro horretan.

Ikasturte hori bukatu nuenean, ekainean, dinamizatzaileetako bat agertu zen, eta zera galdetu zidan: «Joango zinateke euskara ikastera baserri batera?» Baietz erantzun nion berehala. Hurrengo hilabetean joan nintzen Hernialdera, 4. edo 5. mailan nengoen orduan.

Maila txukun samarra da.

Seme-alabekin eta amarekin moldatzen nintzen, baina aitari, Frantzisko Leundari, ez nion tutik ulertzen. Eta handik zazpi urtera gauza bera gertatu zitzaidan nire andrearen aitarekin, baina ordurako euskara irakaslea eta idazlea nintzen! Ulertu, tutik ez: ez nik hari, ez hark niri. Hitz egiten zidan, erantzuten nion, eta ez zidan ulertzen. Behin, «*axeri* bat ikusi dut», esan nion aitaginarrebari. Ez zidan ulertu. «Azerie», esan nion gero. Ez zidan ulertu. Emaztea etorri zen, «axeie» esan zion, eta orduan ulertu zuen.

Alkizara joaten zinen goizero?

Tomasen baserrian, Goienetxen, Iñaki delako bat zegoen, eta hura eta biok elkarrekin joaten ginen Alkizara, oinez. Koro Garmendia genuen irakasle. Paseo polita zen, eta klasean ere ondo, lau ordu inguru. Arratsaldeetan, nire kapatazarekin, zeinari ez nion ostiarik ulertzen, belarra biltzen eta sufritzen aritzen nintzen, zentzu fisikoan. Bera gizon sendoa zen.

Hango egonaldiak euskarazko nobelarik arrakastatsuenetako bat sortzeko aukera eman zizun. Zerk eraman zintuen bizipen haiek paperean jartzera? Beharrak?

Aitak, Frantziskok, esan zidan egun batean ez esertzeko belarretan, ni jarrita nengoen tokian «txindurri piloa» zegoelako. Ez nion putzik ulertu, eta konturatu nintzenerako inurriz beteta

«Ez da inolako esajerazioa esatea baserriko gizonari hitz bakar bat ere ez niola ulertzen. Arratsalde batean, meriendan ari ginela, gerran bizi izandakoa kontatu zidan. Zer ulertu nion? Esandako hitz guztietatik zer? Kapitan. Besterik ez»

«1992an, nire Gasteizko lagun taldearekin nintzela, baserrian benetan gertatutako gauzak kontatzen hasi nintzen. Lagunak barrez lehertu ziren, eta liburu bat idatzi beharko nukeela esaten zidaten denek»

nengoen. Hori ez nuen liburuan jarri, baina ni Woody Allen nintzen. Eta jendeak pentsatuko du gauza batzuk puztuta daudela. Alergiarena egia da. Eskuak 45 minutuan odoletan jarri zitzaizkidala ere egia da. Uztaila zen, eta sekulako beroa egiten zuen. Baina, ikasi? Baserrian? Ezertxo ere ez.

Ez da inolako esajerazioa esatea baserriko gizonari hitz bakar bat ere ez niola ulertzen. Arratsalde batean, meriendan ari ginela, gerran bizi izandakoa kontatu zidan. Zer ulertu nion? Esandako hitz guztietatik zer? Kapitan. Besterik ez.

Eta etxeko gainontzekoei ulertzen al zenien?

Joakinak, amak, euskaraz hitz egiten zuen; aitak ez dakit zer hitz egiten duen. Semealabak jatorrak ziren denak, laguntzen zidaten. Joxe Marirekin egoten nintzen gehienbat.

Baina nolatan bururatu zitzaizun nobela idaztea?

1992an, nire Gasteizko lagun taldearekin nintzela, baserrian benetan gertatutako gauzak kontatzen hasi nintzen. Lagunak barrez lehertu ziren, eta liburu bat idatzi beharko nukeela esaten zidaten denek. Halaxe izan zen. Bestela ere, ordurako pentsatua nuen baten bat jarri behar zela euskaragatik madarikatzen. Jende askok esaten zuen 'euskarak egiten gaitu euskaldun' eta halako kontu politak, baina bitartean euskara ikasleak desesperatuta.



Lehen atala idatzi ondoren, konturatu nintzen ederki ari nintzela, nire uste harroan.

Gero, trabatuta gelditu nintzen pixka batean. Baina jarraitu nuen, eta azkenerako bukatu. Argitaletxera eraman nuen, Inazio Mujika Iraolak eta Jorge Jimenezek hartu zuten, baina aurretik kuadrillako batek irakurri zuen. Gogoan dut aurkezpenean oso urduri nengoela. Lehen edizioko azaleko irudia gaizki moztuta zegoen: sardearen ziriak ez dira agertzen. Gaizki moztu zuten inprentan.

Azkenean, baserritar batekin ezkondu zara eta baserriaren bueltan jarraitu

«Pentsatua nuen baten bat jarri behar zela euskaragatik madarikatzen. Jende askok esaten zuen 'euskarak egiten gaitu euskaldun' eta halako kontu politak, baina bitartean euskara ikasleak desesperatuta»

«Gogoan dut liburuaren aurkezpenean oso urduri nengoela. Lehen edizioko azaleko irudia gaizki moztuta zegoen: sardearen ziriak ez dira agertzen. Gaizki moztu zuten inprentan»

duzu nolabait. Eta, hala ere, *outsider* sentitu zara beti?

Donostian bizi den edozein euskaldun hartu eta Urrestillako plazan askatzen baduzu, jendearekin hitz egiteko arazoak izango ditu, hori ziur.

Euskaltegiko irakaslea izan nintzen, eta, gerora, kafea hartzera agertzen nintzen noizik eta behin. Emaztearekin agertzen nintzenean—hika egin izan dit beti— nire euskaltegiko irakasle gehienek esaten zidaten ez ziotela putzik ulertzen.

***Kutsidazu bidea Ixabel* izenburua ez omen zaizu gustatzen.**

Joxerra Garziaren ideia izen zen hori. Eta nire andreari ere gustatu zitzaion. Nik jarriko nion *bazinderraizkit*, edo antzeko zerbait. Edo *hablaban serrao*. Edo *Me cago en el vascuence*. Antzekoren bat behintzat. Baina agian espliziuegia da.

Izenburua gerora esan zidaten, eta ezin zen aldatu.

Nik askotan aipatzen dut Konfuzio—nire Konfuzio oso konfusoa da—. Eta Konfuziok esan zuen behin bi gauza oso triste zeudela munduan: bat, estatua barbaroen mende erortzea. Barbaro zioenean, batez ere letradunez ari zen Konfuzio. Eta bigarrena, euskal literatura. Horretaz konturatuta, esan nuen, aber: *Bi anai, Ehun metro, Zergatik panpox, Hamaseigarrenean aidanez... Euskara putzu sakon eta ilun bat zen*. Eta azaldu zen militar bat zeharka begira, eta esan zuen umorea behar zela.

Kutsidazu bidea Ixabel izan zen askoren gustuko eta batzuen disgusturako. Batzuek esan zidaten oso ganberroa nintzela.

Atzera begiratuta, balentria izan al zen euskara ikasteko egindakoa?

Ez nuke esango balentria izan zenik. Oso motibatuta nengoen. Ruperri eta halakoei esker deskubritu nuenean bazegoela hor mundu bat, nire motibazioak 0tik 100era egin zuen ziztu batean. Testuingurua kontuan hartzekoa da 1976an joan nintzen baserrira. Gure pisuan koktelak egiten ziren, eta bi aldiz pasatu nintzen komisaldegitik. Pisukide batek begi bat galdu zuen. Poliziak gure klaseko bat hil zuen... Fronte guztietan egin behar zen gerra. Manifetara joaten nintzen, guztietara, oso arriskutsua zen baina hortxe zegoen.

Troskik esango zuen masak kulturizatu behar direla baina horrekin batera gerra egin behar dela. Eta ari nintzen euskara ikasten eta aldi berean Euskadi askatzen. Eta aldi berean totxo handi batzuk irakurtzen: LAIA Bai eta LAIA Ez...

Baserri batera joatea, finean, erraza zen. Frantsesa eta ingelesa ondo ikasi nituen, ona naiz hizkuntzak ikasten.

Hura egin eta gero, euskara irakasle egin zinen.

12 urtez aritu nintzen horretan. Hasieran lehen mailatan aritzen nintzen, eta gero jarri ninduten inork nahi ez zituen gaietan; alegia, Alfabetatze kurtsoan eta EGAn. Alfabetatzea ez zen hain gogorra, baina EGA lortu nahi zutenekin peleatxoa izaten nuen, ez baitzuten idatzi nahi izaten. «Lehen proba da, eta puntu gehien ematen duena» esaten nien, baina inork ez zuen idazten. Hilabete pasa eta gero, berehala antzematen nuen nork gainditukо zuen eta nork ez.

Koro Amas Azpiroz

Oroitzapen politak

Hemeretzi urte nituela heldu nintzen Alkizara, 1976an.

Pedagogiako lehen urtea egina nuen Bilbon, eta Magisteritza egitera itzuli nintzen Donostiara. 50 urte pasatu dira.

Ez dut gogoan nola iritsi zitzaidan Alkizara euskara ikastera joateko proposamena. Joan ginenok elkar ezagutzen genuen: neskek eskolatik, eta Mundaizeko mutil haiek urte batzuk lehenagotik.

Ustez, proposatu egingo zidaten, eta nik konbentzituta emango nuen izena; alde batera, aspalditik neukalako euskara berrikasteko nahia, eta beste aldera, euskara menperatzea ezinbestekoa zelako irakasle izateko.

Familia euskaldunekoa naiz: amaren gurasoak Berrobitik eta Unanuatik etorriak, eta aitaren ama Zegamatik. Gaztetan Donostiara lanera etorritakoak, denak ere. Amonarekin bizi ginen, aitaren amarekin. Hark gutxitan egiten zuen euskaraz, eta aitak ez zekien askorik. Ama, berriz, euskaraz aritzen zen gurasoekin.

Easo Plazaren inguruan bizi ginen denak. Amak aiton-amonen haragian egiten zuen lan, inguru berean. Amak ordu asko ematen zituen lanean, eta etxean Bernardita egoten zen, Berroetako neska bat, euskalduna hura ere.

Garai hartan, anaia zaharrenak eta biok dezente hitz egiten genuen euskaraz. Lauzpabost urterekin, Bernardita joan eta Angelines etorri zen Beloradotik (Burgos). Ordutik aurrera, gaztelaniaz hitz egin genuen gure etxean.

Batxilergoan, euskara berreskuratzeko saioren bat egina nuen, eta Alkizara joateko aukera izan nuenean, ez nuen zalantzarik izan.

Oso oroitzapen polita izan dut esperientzia hartaz. Baserriko bizimodua ez zitzaidan arrotza egin.

Baserrian zenbait udara pasatakoak ginen txikitan, aita eta ama lanean zeudelako.

Alkizara iritsita, lotsa ematen zidan inoren etxera sartzea ezagutu gabe, baina taldean gindoazen eta oso harrera ona egin ziguten. Ondo moldatu nintzen.

Antzieta Baserrian egon nintzen. Baserrian, senar-emazteak eta haien hiru seme-alabak bizi ziren. Ez dut gogoan beste heldurik zegoenik. Alaba zaharrenak 13 urte inguru zituen, Edortak 10 eta alaba gazteenak 7, gutxi gorabehera.

Edortaren izena gogoratzen dut, eskolako lanetan lagundu niolako hari. Beno, lagundu baino gehiago, egin egiten nizkion. Maistrak El quijote de la Mancha (bertsio erraza) irakurrarazi zion, eta laburtzea agindu. Siesta garaietan heltzen nion nik. Ez neukan irakurrita, eta gustatu zitzaidan.

Ondoren, ama, hiru seme-alabak eta bostok sorora joaten ginen laguntzera, denontzat merienda hartuta. Patatak ateratzen eta belarra biltzen aritu nintzen hilabete osoan.

Oso ondo pasa nuen, bai lanean, bai eta hiru seme-alabekin jolasean ere. Barre asko egiten genuen.

Ez dakit zergatik, baina gogoratzen ditut abuztu hartako tomate eta piper entsaladak; baratzetik hartu berriak, denak. Ez ditut goizeko eskolako klaseak gogoratzen; barkatu Luispe. Urte haietako tokiak, klaseak, gramatika... horiek guztiak lausotuta ditut buruan.

Oso oroitzapen politak ditut asteburuez ere. Bisitak, inguruko herrietako jaiak, kantak, barreak...

Alkizakoa esperientzia polita eta aberatsa izan zen, asko lagundu zidan. Handik hiru urteetara Euskaltzandiko D titulua lortu nuen, eta bizitza profesional osoan irakaslea izan naiz D ereduan. Urte horietatik 23, Asteasun eman ditut.

«Ez dakit zergatik, baina gogoratzen ditut abuztu hartako tomate eta piper entsaladak; baratzetik hartu berriak, denak. Ez ditut goizeko eskolako klaseak gogoratzen; barkatu Luispe. Urte haietako tokiak, klaseak, gramatika... horiek guztiak lausotuta ditut buruan»

Antton Gurrutxaga

Oraindik ez dakit

Oinez noa, bidean behera, Alkizako kaletik Aldapa bailarara. Goizean, egunero bezala, eskola izan dugu herrian, eta orain, egunero bezala, errekaraino jaitsi eta aldapan gora hasiko naiz, Urruzola baserrira iritsi arte. Hor eman didate ostatu, eskuzabal, abuzturako: lotokia eta jana doan, arratsaldez etxeko umeei eskola-lanetan laguntzearen truke. Hori baino askoz gehiago ematen didate, ordea: beren hizketa, euskara aditzeko eta haiengandik ikasteko aukera. Oraindik asko ez dakit. Hasteko, entenditu gutxi. Baserrira joan nintzen aurrenekoan, etxeko nagusiak, Joxe Ramon Aranburuk, "Etsiko al haiz" galdetu zidan. Entenditu niolako plantak eginda ere, berehala konturatu zen ezetz, eta "Ea ohituko haizen" batez argitu zidan galdera. Etsiko naiz, bai, eta euskaraz hitz egiten aterako naiz hemendik, euskaldun berria izango naiz. Baina hori oraindik ez dakit.

Aurreko urrian, unibertsitatean kimika-ikasketak hastearekin batera, Luispe Gutierrezek, nire gelako Jose Mari lagunaren anaia zaharrak, euskarazko ikastaroa hartzea proposatu zidan. Bizpahiru hitz nekizkien euskaraz; aurreratuena, behin aitari etzun nion euskarazko esaera bakarra: ondo loin. Ezerezetik hasi ginen orduan aditzak, zuka eta hika, ikasten, hitz batzuk, lehen esaldiak eta, lehen egunetik, kantu bat.

Oker ez banaiz, Leteren Gizon arruntaren koplak izan zen lehena. Mundu berri baten zantzuak hasi zitzaizkidan agertzen, gerora nire mundua, euskarazkoa, izango dena. Baina artean ez nekien hori eta, egia esan, oraindik ez dakit.

Baina Alkizara etorriko banintzen, euskarazko giroan ito gabe murgilduko banintzen, praktika errealetik gertuago den zerbaiten beharrean nengoen, eta uztailean Antiguako emakume baten etxera joan gara astean zenbait aldiz Txemari, nik bezala euskaldun izan nahi duen mutil bat, eta biok. Luispek ireki dit, berriz ere, horretarako bidea. Andre hori izan da nire mintzapraktikako gidaria, gerora euskalgintzan "mintzalagun" gisa izendatuko den pertsona. Urteak pasatuko dira eta ez dut bere izena gogoratuko, eta iruditu zait ez diodala merezitako esker ona erakutsi. Baina hori oraindik ez dakit.

Alkizako eskola-maisuak Luispe bera eta Iñaki Orbegozo ditugu. Noizean behin, Alkizako apaiza ere etortzen zaigu, ea nola ari garen galdetzera eta hainbat kontu kontatzera. Joxe Agirre da bera, Zeruko Argian Joxe Alkiza ezizenaz idazten duena. Neurri handian, hari eskerrak gaude hemen, bera ibili baita, Luispe eta Iñakirekin batera, baserritarrak konbentzitzen kalekume erdaldun

«Nola imajinatu irailean Euskaltzaindiaren D titulua aterako dudala, eta Luispek deituko didala Amarako Ikasbideko gau-eskolan irakasle bat behar dutela esateko, eta ausartu egingo naizela (ai ene, zer erakutsiko ote diet)»

euskaraz hasi berri batzuk etxean hartzeko. Baita lortu ere. Eta hemen gara, Kiti, Txema, Jose Mari, Koro, Txemari eta beste zenbait, etxetik hain gertu genuen mundu bat ezagutzen eta hizkuntza bat ikasten, hikaren paradigma osoa ateratzen eta praktikatzen, bakoitza bere baserrian entzuten dituen esaldi deigarriak eta istorioak partekatzen, Bertso Zaharrak diskokoak buruz ikasten, baserrian zerbait entenditzen ez dugunean, hau da, maiz samar, ahal den moduan erantzuten, etengabe "berriz esango al didazu?" ez esateagatik. Horiek eta beste hainbat ariketa gustura eginez, ia konturatu gabe sartuko zait euskara barnean, edo ni hartan sartu, murgiltzeraino; baina, noski, hori oraindik ez dakit.

Urruzolara bidean segitzen dut, eta gaur den eguraldi ederrarekin, Karmen Arrutik, etxekoandreak, baratzeko tomatea jarriko du entsaladan, nire bizitzan jango dudan tomaterik onenetakoa, onena ez bada. Gero, arratsaldez, etxeko umeei eskolako lanekin laguntzen saiatu behar dut; lehen egun hauetan,

dakidan euskara kontua hartuta, haiek laguntzen didate gehiago nik haiei baino; abuztua aurrera joan ahala, baliagarriagoa izango ahal naiz! Hemendik joaten naizenean, konturatuko naiz nire laguntzak ez duela ezer balio etxe honetan ematen didatenaren aldean. Baina oraindik ez dakit.

Etxe ederra da Urruzola baserria, baina urte batzuk pasatu arte ez dut jakingo Alkizako lehen dokumentuetan, XIV. mendekoetan, aipatzen dela, arku gotikoak dituela, eta Eusko Jaurlaritzaren Arkeologia Ondarean erregistratuta dagoela. Baserritik beheraxeago, Urruzola Azpi etxea dago, eta bertan Juan Luis Goenaga pintorea bizi da. Aurrekoan etorri zen gurera, eta poza hartu nuen ikusita hari errazago ulertzen niola etxekoei baino, zertxobait aurreratzen ari naizen seinale. 18 urteko kalekume mukizu naizen honek ez daki nor den Juan Luis. Urte batzuen buruan, aho bete hortz egongo naiz haren pinturen aurrean, eta harekin gehiago hitz egiteko orain dudan paradaz baliatu ez izanaren pena sentituko dut. Baina, noski, hori oraindik ez dakit.

Laster jakingo dut datorren astean Zizurkilgo festetara joango garela eta han nire lehen bertso-saioa entzungo dudala. Herriko gazteekin joango gara, eta saioa magnetofoi txiki batean grabatuko dugu, gero astelehenean hobeto entzun, hobeto ulertu eta bertsoak idazteko. Han izango dira Lopategi, Agirre, Azpillaga eta konpainia. Gai-jartzaileak esango dio Amurizari bi bertsotan gezurrak esateko. Bertso horiek urtetan izango ditut gogoan (bueno, bigarren bertsoaren hasiera gogoratu nahian ibiliko naiz denbora luzez, baina ezin izango dut inoiz gogora ekarri). Baina, esan gabe doa, hori oraindik ez dakit.

Bart gure etxean izugarriak
ikusi berriak gera;
akerrak jantzi zun ikurrin bat
adarretik adarrera;
oillarrak gero kantatu zuen
preso guztiak kalera;
saguak ere "Gora Euskadi"ka
ganbaran gora ta behera;
hau sinistu nahi ez badezute
etorri bihar gurera (bis).

—----------?
etorri zen aguazilla;
subersiyua zela hura ta
abere guztien billa:
guztiak preso eraman ditu
txakurra utzirik hilla;
zerurik bada Birjina amaren
altzoan izan dedilla;
istori honen berri ematera
etorri naiz Zizurkilla (bis).

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Nola imajinatu irailean Euskaltzaindiaren D titulua aterako dudala, eta Luispek deituko didala Amarako Ikasbideko gau-eskolan irakasle bat behar dutela esateko, eta ausartu egingo naizela (ai ene, zer erakutsiko ote diet). Eta, ikasturte berrian, Kimika Fakultateko EKTn sartuko naizela, lagun berriak egingo ditudala, bizi artekoak izango direnak (Tere, Mariaje, Txopo, Arrate, Bittori, Juankar... baita hemendik urte askotara Alkizako alkate Izango den Inaki Irazabalbeitia ere). Eta datorren urtean UEUn, niretzat lehena izango den kimika-lana argitaratuko dugula (konposatu organometalikoak), baina ez naizela Larraonara joango, zeren Luispek Orexara joatea proposatuko baitit, Alkizan gauden modu bertsuan, baina ni irakasle. Txuiñe Berri baserrian hartuko naute, eta nire euskarari beste bultzada handi bat emateko aukera eskainiko didate. Hainbat herritako baserriak lortzen lagunduko diot Luisperi, eta, jende askoren eskaria izango denez, atari-proba bat antolatuko dugu. Beste ikasleek baino gehiago dakien Sagastizabal izeneko bat Hernialden genuen baserri bakarrera bidaliko dugu. Handik urte dezentetara, hark Alkizara egingo dituen ibileren kronika jasoko du Kutsidazu bidea, Ixabel liburuan. Irakurtzen dudanean, esango dut: hara, nire esperientzia bera da hori! Ixabel kenduta, noski. Orexan bi adiskide, Juankar eta Patas, izango ditut ikasgelan. Nire inguruan, gehienak izango gara euskaldun berriak. Urte hauetan ari gara batzuk ikasten, laster hasiko dira beste hainbat, eta hala biziko gara, euskaraz, mundu honetan

garen artean. Esan gabe doa, hori dena oraindik ez dakit.

Orain nork pentsatuko euskara nire ibilbide profesionalaren ardatza izango dela, Unibertsitatean euskara zientifikoa irakasgaia bi fakultatetan ematen (Kimikan eta Informatikan) eta, AEKn zenbait urte eman ondoren, Elhuyarren bukatuko dudala, erretiratu arte, hiztegigintzan eta Hizkuntza Teknologien ikerkuntzan arituz. Tesia euskaraz egingo dudala, Euskaltzaindiaren egitasmoetan ere lan egingo dudala... Jakina, hori ere oraindik ez dakit.

Eta nola jakin orain hemendik 50 urtera Luispek berriz idatziko didala, proposatuz lerro batzuk idaztea nire ikaste- eta bizi-esperientzia honetaz. Izan ere, urte seinalatua izango da askorentzat, eta Alkizako herriak merezi bezala ekarri nahi izango du gogora. Eta orduan gogoratuko zait urte pare batez bisitak egin arren, ez dudala etxekoekin harremana mantenduko, eta ez naizela Urruzolara itzuliko. Eta pentsatuko dut etxean hartu nauen familiak, nik idatzitako lerroak irakurtzen baditu, jasoko duela beharbada nire aitortza, gogo biziz adieraziko baitut hilabete honek bizitza aldatuko didala, mugarri bat izango dela, eta ezin ezabatuzko marka utziko duela nigan betiko. Baina orain, Urruzolara iristen ari naizela, hori oraindik ez dakit.

«Orain nork pentsatuko euskara nire ibilbide profesionalaren ardatza izango dela, Unibertsitatean euskara zientifikoa irakasgaia bi fakultatetan ematen (Kimikan eta Informatikan) eta, AEKn zenbait urte eman ondoren, Elhuyarren bukatuko dudala, erretiratu arte, hiztegigintzan eta Hizkuntza Teknologien ikerkuntzan arituz»

Jose Inazio Gorostidi *Lete*

«Barnetegian lotan hasi zirenean, kristoren show-a izaten zen Alkizan»

Jose Agirre apaiz zegoen Alkizan, eta hark antolatu zuen mugimendu guztia. Hura ibili zen baserriz baserri galdezka, ea norbait edukiko ote genukeen hilabetez.

Esango nuke hogei neska-mutil inguru etorri zirela. Goizean ikasten aritzen ziren, eta arratsaldez, berriz, pixka bat lagundu, afaldu eta lo egiten zuten. Hurrengo egunean, berriro klasera. Etxe handia genuen eta ez zegoen toki arazorik.

Aita, ama eta lau senide ginen etxean. Lauren artean ni nintzen zaharrena, 16 urte izango nituen lehen ikaslea etorri zenean. Ni baino pixka bat zaharragoa zen hura. Luispe Gutierrez zuen izena. Primeran ibili ginen. Haren anaiak ere etorri zirela uste dut.

Edozein lan egiten zuten baserrian. Uda zenez, askotan izaten ginen belarretan, beti zipoka-edo, «hau horrela egin behar duk», «hura gaizki egiten duk» eta abar. Azkenerako, baserritar bihurtzen genituen denak.

Berehala antzematen zitzaien euskaran hobekuntza. Gainera, nire gurasoek ez zuten erdararik egiten ia, eta dena euskaraz entzuten zutenez, errazago egiten zuten hobera.

Gero, barnetegian lotan hasi zirenean, kristoren showa izaten zen Alkizan. 30 neska-mutil batzen ziren afaldu ondoren, juergan, egunero. Etortzen zen jendearen artean bikoteak ere sortu ziren. Sekulako harrera egiten zitzaien, pentsak bikoteak eta guzti sortu zirela, eta giro ederra sortzen zen.

Herriak izugarrizko hazkuntza izan zuen orduan. Barnetegiari esker, jende askok ezagutu zuen Alkiza.

Anekdotatxo bat kontatzearren, nik moto txiki bat nuen, eta herriz herri ibiltzen ginen bertso saioetan. Batean eta bestean festak izaten ziren, eta horietan elkartzen ginen denok, bertakoak eta ikasleak.

Koro Garmendia

Hilabeterako baserri batera joatea abentura bat zen, baina ez diot halako transzendentziarik ematen»

Bizitza laboralaren erdia politikan emana da, eta beste erdia eskoletan, haurrei euskara irakasten.

Bigarren ofizio horretarako, giltzarri izan zituen Alkizako bi egonaldiak: ikasle izan zen lehendabiziko urtean, eta irakasle, berriz, bigarrengoan. Kurioski, bere izena bera duen baserrian egokitu zitzaion egonaldia Koro Garmendiari: Garmendian.

Zein zen zure panorama Alkizara joan aurretik?

Etxean ez genuen inolako transmisiorik izan, eta ez genuekan kontakturik euskararekin. Hamabost urte inguru nituela, klase batzuk hartu nituen boluntario aritzen ziren batzuekin; ordurako banuen euskara ikasteko kezka. Unibertsitatean, EUTGn, Alkizako aukeraren berri izan nuen gure ikaskide Iñaki Orbegozo, Luispe Gutierrez eta beste hainbaten bidez, eta hortxe eman genuen izena lagun batek eta biok. Lehen urtean izan ginen han.

Eta bigarren urtean irakasle.

Garai hartan, euskaldun zaharrak alfabetatuta zeuden ala ez konprobatzera bideratuta zegoen D titulua. Ez zegoen ahozko probarik. Egia esanda, ez dakit zer gertatuko ote zatekeen egin izan balute. Nota onarekin pasatu nuen proba,

«Nota onarekin pasatu nuen D titulurako proba, eta hurrengo urtean irakasleak behar zirenez eta D titulua ere banuenez, horretara jo nuen. Ikasle izatetik irakasle izateko pausoa modu natural samarrean gertatu zen»

eta hurrengo urtean irakasleak behar zirenez eta D titulua ere banuenez, horretara jo nuen. Ikasle izatetik irakasle izateko pausoa modu natural samarrean gertatu zen.

Bizipenen aldetik, trinkoak al ziren ikastaroak?

Bai, trinkoak ziren, baina ez nioke halako transzendentziarik emango horri. Hau da, nahiko modu naturalean gertatu zen guztia: euskara ikasteko gogoa, lagunarteko bizikidetza, aste barruko klaseak, asteburuetako jaiak eta abar. Adin horretan, nahiko ohikoa zen zirkulu asko izatea. Batzuk aldez aurretik ziren oso lagunak, eta elkarren artean oso harreman trinkoa zuten; eta beste batzuk ez horrenbeste. Euskara ikasi nahi genuen, oso giro atsegina zegoen, eta hilabeterako baserri batera joatea abentura bat zen, baina ez diot ematen halako transzendentziarik. Nahiko lan genuen euskara ikasten, ulertzen, aurrera egiten.

Zer egiten zenuen baserrian?

Kurioski, baserriak nire izen bera zuen: Garmendia. Senar-emazteak bizi ziren han, 12 urteren bueltako seme-alabekin. Guk ez genekien ezer baserriko lanez, eta, nolabait esanda, sorora belarretara eramanez gero, traba ginen laguntza baino gehiago. Nire kasuan oso garbi zegoen etxekoandrea libratu behar zela baserriko lanetan lagundu zezan, eta ni umeez arduratzen nintzen: haiek zaindu, klasetxo batzuk eman... Familia txikia zen, eta haien artean egiten zuten baserriko lana. Ez dugu harremanik mantendu.

Anekdotarik?

Ez dut berezirik, baina gogoan dut egur-ikatza egiten zutela, eta etxerako ez ezik saltzeko ere egingo zuten, gizona ez baitzen fabrikara joaten. Garai hartan industriako soldata bat edo jarduera bat izaten zen Alkizako baserri gehienetan, baina hartan ez. Ikatza nola egiten zen orduko hartan ikusi nuen lehendabizikoz, eta ideiarik ez nuen. Txondorra itzaltzen ari denean ura bota behar izaten zaio, umeekin egiten zuten hori. Eta nik ere umeen lanak egiten nituen.

Zer izan zen zuretzat urte batetik bestera irakasle bihurtzea?

Ez zidan aparteko sentimendurik eragin. Titulua atera berria nuen,

ahozkoan maila dezentekoa nuen, proiektua ezagutzen nuen eta irakasleak behar ziren. Nahiko natural joan zen dena.

Klaseak ez ditut gogoan, baina uste dut ez genuela halako antolamendurik. Bazuten gramatika parte bat eta mintza praktika, eta kantua ere oso inportantea zen. Kontuan hartu behar da garai hartan fotokopiagailurik ere ez geneukala Alkizan.

Beste alde batetik, izena ematen zuen jendeak izugarrizko gogoz eta interesez heltzen zion euskarari, eta edozein gauzarekin lan egiteko prest zegoen beti.

Euskara irakaslea izan zara urte luzez.

Alkizako bigarren urtea eta gero, Bartzelonara joan nintzen. Artearen Historia bukatu nuen han. Baina itzuli nintzenean, 1979an edo, ez zegoen artea erakusteko aukerarik. Aldiz, artean euskara ofiziala ez zen arren, euskara irakasteko eskari handia zegoen hainbat eskola eta institututan. Arrasateko institutuan aritu nintzen lehen urtean. Gero euskara irakasle izateko oposaketak egin nituen. Asko ikasi behar izan nuen, baina plaza atera nuen. Erretiroa hartu aurreko azken zazpi urteak Usandizaga institutuan eman nituen, han atera bainuen plaza.

«Izena ematen zuen jendeak izugarrizko gogoz eta interesez heltzen zion euskarari, eta edozein gauzarekin lan egiteko prest zegoen beti»

Alkizako Erretore Etxeak hiru jabe zituen: Gipuzkoako Eliz Barrutia, Alkizako udala eta Bengoa familia. Barnetegiak okupatu zituen hiru solairuak Eliz Barrutiarenak ziren. Egun etxe osoa Alkizako udalaren jabegokoa da.

Joxe Agirre Alkizako parrokoa protagonista saihestezina da barnetegiaren historian. Hari esker heldu ziren lehen euskara ikasle helduak Alkizako herrira. Baserrietan egiten zuten egonaldia, eta horretan ere bitartekari lanak hartu zituen Agirrek.

Pertsona ezaguna zen orduko euskal kulturan, besteak beste, Joxe Alkiza izengoitiarekin artikuluak publikatzen zituelako *Zeruko Argia* aldizkarian eta Johan Ibsen-en *Et dukkehjem* euskaratu zuelako (Andere etxea).

Profes

ionaltasunez

(1981–1987)

Udako euskara barnetegiak Ilazki euskaltegiaren esku. Lanbidearen profesionaltasuna, militantziaren zentzurik galdu gabe.

Iñaki Pikabea, Jokin Ansorena eta Alex Mungia

«Alkizako herritarrek asko lagundu ziguten»

Unibertsitateko ikasle batzuen ekinaldi adoretsuaren ondotik, Ilazki euskaltegiak hartu zuen Alkizako udako euskara barnetegiaren erreleboa. Euskaltegiak zeukan izen onaren eta jardunaren abaroan, ikastaro egituratuagoak eskaini zituzten Alkizan, baina haien aurretik aritu zirenen grina, gogo eta ahalegin berberez. Jokin Ansorena, Alex Mungia eta Iñaki Pikabea, esate baterako, Ilazki euskaltegiko irakasleak ziren 80ko hamarraldian, eta barnetegi bat edo beste egin zuten Alkizan. Orduko giroaz eta bizi izandakoaz gordetako oroitzapenak berritu dituzte lerrootan.

Ilazki euskaltegiko irakasleak zineten zuek. Nola heldu zineten Alkizara?

Jokin Ansorena: Batera hasi ez baginen, antzerako hasiko ginen euskaltegian. Neguko eskaintza zeukan euskaltegiak, eta udan barnetegiak eskaintzen zituen, batez ere Zegaman eta Alkizan garai hartan. Tartean sartu ziren gero Uhitzi, Altzo, Bidania...

Gara hartan prestigio handiko euskaltegia zen Ilazki, 5 izarrekoa. Artean ez zegoen eskaintza hori AEKn, eta jende askok joan nahi zuen barnetegietara. Alkizako etxea parrokoak kudeatzen zuela esango nuke, harekin jarriko ziren harremanetan, eta halaxe bideratuko zen Alkizako eskaintza. Kaletarrentzako konfort handiegirik ez zeukan etxeak, baina garai haietan oso ondo eramaten zen hori guztia. Jende desberdina nahasten ginen.

Hilabeteko egonaldiak izaten ziren?

Jokin Ansorena: 3 astekoak izaten ziren. Egunean sei ordu klase ematen genituen: goizean lau, eta arratsaldean, bazkalostean, beste bi. Udaletxeko kontzejupean bazkaltzen genuen, eta horretarako, bazen Maritxu izeneko emakume bat, historikoa bera, ostatuari oso lotua bere familia osoarekin batera. Harekin egin genuen tratua, eta oso ondo moldatu ginen. [Maritxu Aierbek herri-ostatuaren ardura zuen orduan eta gero Otsamendi tabernakoa izan zuen].

«Kaletarrentzako konfort handiegirik ez zeukan etxeak, baina garai haietan oso ondo eramaten zen hori guztia»

Jokin Ansorena

Iñaki Pikabea: Gogoratzen dut ostatuko komuna nolakoa zen. Komuna turko horietako bat zen: eskaileratan gora egin, eta hantxe zulo bat. Logelak mistoak ziren. Taldeka izaten ziren, sei, zortzi, hamar. Eta hor elkartzen zen nahi zuena edo ahal zuena, joko horretan ez ginen sartzen. Gosaria gure artean prestatzen genuen. Bezperan, esne bila joaten ziren ikasleak baserri batera, eta handik ekartzen zuten esnea.

Alex Mungia: Gazteak ziren denak. Irakasleok ere gazte.

Iñaki Pikabea: Erosotasuna, eskasa. Baina hala ere oso giro ona geneukan.

Alex Mungia: Horretan dagoen aldea oso nabarmena da. Orduan, jendearen motibazioa ez zen gaur egun izan daitekeena, alegia titulu bat ateratzea edo. Ez beti behintzat. Jendeak euskara ikasi nahi zuen, eta horretara zuzentzen zen giro guztia ere.

Ilazki euskaltegian irakasle zineten hirurak. Zuek hala nahi izanda ala euskaltegiak eskatuta joan zineten Alkizara?

Alex Mungia: Oker ez banago, hainbat plaza sortzen ziren batera edo bestera joateko. Uztailean guztira sei talde, abuztuan beste sei. Gure artean bazen jendea joan nahi ez zuena, beste batzuek nahi izaten genuen. Geure artean hitz eginez banatzen genuen lana. Normalki, bakoitzak barnetegi bakarra egiten zuen, baina bazeuden gure artean bi barnetegi egiten zituztenak ere.

Jokin Ansorena: Estruktura bazegoen, baina inon esplizitatu gabea. Eta zuzendaria ere egongo zen, baina nahiko kooperatiboa zuen funtzionamendua: geure artean hitz eginda antolatzen genuen nork zein klase emango zuen eta nora joango zen. Soldata pean izaten zen betiere.

Klasea eman baino gehiago egiten zenuten.

Alex Mungia: 24 ordutan militatu beharra zegoen. Eta gustura. Oso pozik egoten ginen.

Iñaki Pikabea: Baina egia da jota bukatzen genuela. Bizi behar baitzen egunez eta gauez. Klaseak, herriko festak, hurrengo egunean klaseak... baziren lo gutxi eginda ondo moldatzen zirenak, beste batzuk ez hainbeste. Beraz, gustura egoten ginen, baina gogorra ere bazen. Zorionez, ez Zegaman, ez Alkizan, ez gainontzeko tokitan, ez genuen istripu bat bera ere izan, nik dakidala behintzat. Eta festarik festa ibiltzen ginen.

Jokin Ansorena: Eta esan beharra dago Alkizako herritarrek asko lagundu zigutela. Laguntzaile koadrila bat genuen. Bat Pinotxo zen.

Alex Mungia: Garai hartako herriko alkatea ere aritzen zitzaigun laguntzen. Antonio zuen izena, oso esku zabala. Joxe apaiza bera ere tartean zen. Gure azpian egiten zuen lo, eta ondo asko entzungo zituen gure zaratak. Baina hala ere, beti laguntzeko prest, umore onez.

Alex Mungia: Herriko eskolan ematen

«Gosaria gure artean prestatzen genuen. Bezperan, ikasleak esne bila joaten ziren baserri batera, eta handik ekartzen zuten esnea»

Iñaki Pikabea

«Gogoratzen dut ostatuko komuna nolakoa zen. Komuna turko horietako bat zen: eskaileratan gora egin, eta hantxe zulo bat»

Iñaki Pikabea

genituen klaseak. Gero berritu zuten, eta dutxak ere jarri zituzten.

Iñaki Pikabea: Mistoak ziren dutxak, eta inork ez zuen kexarik. Autoantolaketa horiek erraz sortzen dira. Oraingo ikuspegitik begiratuta, esango nuke oso aurrerakoiak izan ginela nahi gabe.

Jokin Ansorena: Alkiza zer zen, eta zer den. Orain herri isolatua bada, pentsa zer izango zen orduan. Eta gu denak kaletarrak ginen; donostiarrak, pasaitarrak... Kultur kontraste handia zegoen, eta hala eta guztiz ere, oso ona izan zen gure arteko harremana beti. Oso nahasketa ona sortu zen. Oso ondo tratatu gintuzten. Hain desberdinak izateko, oso ondo konpondu ginen. Eta estimatu ere, oso estimatu gintuzten. Garai hartan bi taberna zeuden Alkizan, halako herri txiki batean: bat ostatua zen, eta bestea estankoa. Sekulako giro ona sortu zen. Horixe da, hain zuzen, nik nabarmenduko nukeen gauzetako bat.

Maila jakin bat eskatzen al zenieten egonaldia egin nahi zuen ikasleei?

Iñaki Pikabea: Zero mailarekin edo deus ere jakin gabe ez zen inor joaten.

Alex Mungia: Ezer jakin gabe ezinezkoa zen. Gutxienez kurtso bat eginda beti.

Mintza praktika saiorik egiten al zuten bertakoekin?

Alex Mungia: Gutxi gorabehera. Eskolaz kanpo, txapelketak antolatzen genituen:

sokatira lehiaketa, futbol partidak herritarren aurka, eta antzekoak.

Jokin Ansorena: Pike handia izaten zen, ez uste. Palan beti irabazten zuten.

Gainera, frontoi estalia zuten. Horretan bakarrenetakoa zen Gipuzkoan. Orain edozein herritan dago, baina orduan ez. Altzo ere horietarikoa zen. Luxu handia zen orduan. Frontoi horretatik palista profesionalak atera dira. Haien kontra palaz ezin genuen ezer egin, baina futbolean bai.

Iñaki Pikabea: Alkiza txikia izanik, zaila zen hartu-emana ez izatea bertakoekin.

Era berean, aitzakiarik izan gabe, zaila izango zen elkarrizketa luzerik izatea.

Alex Mungia: Elkarrizketa luzeak ez, baina motzak asko izaten ziren, halere.

Jokin Ansorena: Eta zeinu hizkuntzan ere aritzen ginen pixka bat.

Iñaki Pikabea: Uste dut jende askok ezagutu duela Gipuzkoako barrualdea barnetegi hauei esker. Donostiar askok Paris oso ondo ezagutuko zuten beharbada, eta Erroma ere bai, baina Gipuzkoako barrualdea ez. Eta Alkizak landa munduarekin lotura polita egin du gure arteko askorentzat. Hainbestekoa izan da lotura, harrezkero gurekin ikasitako ikasle batzuk Alkizara joan zirela bizitzera. Nolabait, iman bat izan zen gutako batzueentzat. Eta esan beharko da *First Days*-en tankerako kutsu bat ere izan zuela Alkizak.

Jokin Ansorena: *First Days*-ena, baina

«Alkiza zer zen, eta zer den. Orain herri isolatua bada, pentsa zer izango zen orduan. Eta gu denak kaletarrak ginen; donostiarrak, pasaitarrak...»

Jokin Ansorena

«Kultur kontraste handia zegoen, eta, hala eta guztiz ere, oso ona izan zen gure arteko harremana beti. Oso nahasketa ona sortu zen»

Jokin Ansorena

baita *Gran Hermano*-rena ere. Hiru astez ia 24 orduz elkarrekin espazio mugatuan, bada esango didazu. Jendea ez zen etxera joaten, gainera. Asteburuetan ere han gelditzen ziren. Talde dinamiketan izaten diren talkak eta kontra-talkak sortzen ziren, baina orokorrean oso harmonikoa zen harremana, bai herritarrekin, bai gure artean. Oroitzapen hori daukat nik.

Eta gu ere nola ibiltzen ginen: Emausetik gauzak hartu, eraman... Gazte sasoikoak ginen, eta gogoa genuen denetik egiteko; garbitu behar bazen, ba garbitu.

Alex Mungia: Parranda egiten bagenuen, lau orduko loa besterik ez eginda ere, diana jotzean txintxo-txintxo altxa eta klasera. Bagenuen hori ere.

6 orduko klasea jarraian antolatzea ez da makala izango. Nola egiten zenuten?

Iñaki Pikabea: Ordurako egituratuta izaten genuen bakoitzak egin behar zuena. Behin-behinekotasun puntu bat ere izaten zen, baina gehiena antolatuta zegoen eta dena prest eramaten genuen. Esan behar da fotokopiagailuak tarteka topatzen zirela. Ezin zenuen esan «fotokopia batzuk egin behar ditut». Alkizan ez zegoen halakorik. Planifikazio bat egiten genuen eta guztia soinean eramaten genuen. Aldaketarik izanda ere, dena antolatuta eramaten genuen.

Jokin Ansorena: Gogoan dut ikasleak banatzen genituela lau edo bost mailatan. Lehena, bigarrena, hirugarrena, hirugarren altua eta laugarrena. Materialak ere prestatuta egoten ziren:

irakurmena, idazketa....

Alex Mungia. Grabazioak ere bagenituen kasetetan. Bideorik ez zegoen, baina zegoen material hori sailkatuta eramaten genuen, eta gero bakoitzak egiten zuen horren araberako lana.

Jokin Ansorena: Diziplina handirik ez geneukan, baina serioak ginen.

Iñaki Pikabea: Behin edo beste, liskar serioren bat edo beste gertatu izan zen ikasleen artean, ezin ikusia edo. Gogoan dut bakarren bat, talde barruko gorabeherak ziren, talde zaila egokitu zitzaidan batean. Halere, guk argi genuen zein zen gure lana. Ondo egin beharreko lan bat zen. Erantsiko nuke batzuek ahalegina egiten zutela kanpoko jendea ere ekartzeko.

Adibidez?

Iñaki Pikabea: Behin, Bernardo Atxaga etorri zen hitzaldi bat ematera.

Jokin Ansorena: 1989an Espainiako Sari nazionala eman zioten, Obabakoak zela eta. Behin Alkizara etorri zen afaltzera, Jimu Iturralderekin beharbada. Solasean aritu ginen, eta halako batean galdetu genion etorriko ote litzatekeen egunen batean. Eta baietz. Orduan ez zen batere ezaguna, hemengo lauk ezagutzen genuen. Ikasleak miretsita utzi zituen. Hainbesteraino txoratu ziren harekin, non opari bat egin nahi izan ziotela. Eta denon artean dirua jarriz, erloju bat oparitu genion. Tolosan erosi genuen. Bere etxera joan ginen oparia ematera, Asteasura.



«Geure artean hitz eginez banatzen genuen lana. Normalki bakoitzak barnetegi bakarra egiten zuen uda bakoitzeko, baina bazeuden gure artean bi barnetegi egiten zituztenak ere»

Alex Mungia

«Uste dut jende askok ezagutu duela Gipuzkoako barrualdea barnetegi hauei esker. Donostiar askok Paris oso ondo ezagutuko zuten beharbada, eta Erroma ere bai, baina Gipuzkoako barrualdea ez»

Iñaki Pikabea



Uste dut Joxan Artze ere etorri zela. Beste fenomeno bat hori ere. Hura ulertzen zailagoa zen ikasleentzat, baina ikusgarria zen, gauzak kontatzeko eragatik eta beste gauza askogatik. Oso gauza politak kontatu zituen eta gainera oso maitagarria zen.

Ikastaroak amaituta, jarraitzen zuen harremanak?

Iñaki Pikabea: Hain giro ederra zegoenean, bai. Alkizako festetara joateko hitzordua jartzen zuten, irailaren hasieran edo. Gehiengo zabala oso gustura eta oso pozik ibili zela esango nuke.

Festarik festa ibiltzen zinetela esan duzue. Aurretik ezagutzen zenituzten festa horiek?

Jokin Ansorena: Hemen gauden hirurak Donostiarrak eta kaletarrak gara, eta Iñaki Pikabeak esan duen bezala, barnetegia bazen modu bat barrua ezagutzeko. Guretzat eta ikasleentzat. Bestela, nola iritsiko nintzen ni Adunako edo Aiako festetara? Nahiko lan.

Iñaki Pikabea: Irakasleen artean bazeuden herrietakoak eta baserrian jaioak. Miren Alegiakoa, Garbiñe Leitzakoa, Malores Zaldibikoa, Brinkolako Antton... Herrietako mundua guk baino ezagunagoa zuten, eta nolabaiteko zubilana egiten zuten. Gehiegi pentsatu gabe oso ondo egokitu ziren haien profilak, gureak eta ikasleenak.

Horren guztiaren ondoren, ikasleen maila aldaketa antzemango zenuten, ezta?

Iñaki Pikabea: Bai. Urrian berriz hasten ginen matrikulazioarekin, eta segituan antzematen zen zein zen egona barnetegi batean eta zein ez, bai hitz egiterakoan, bai norberaren konfiantza aldetik ere. Baina hori pertsona bakoitzaren menpekoa izaten zen.

Jokin Ansorena: Progresio aldetik ere nabarmena zen, batzuk oso maila

«Talde dinamiketan izaten diren talkak eta kontra-talkak sortzen ziren, baina orokorrean oso harmonikoa zen harremana, bai herritarrekin, bai eta gure artean ere»

Jokin Ansorena

> **«Nire irudi bat da hauxe: gu, ostatuan, bazkaltzen-edo, mahai luze batean, eta Lete eta gizon talde bat barran, guri begira. Desafioa bota, eta azkenean bertakoen eta kaletarren arteko apustua. Baina giro onean azkenerako»**
>
> **Alex Mungia**

apalarekin joaten baitziren. Eta gero, beste gauza guztietan bezala: batzuk azkar ikasten zuten, eta beste batzuk motelagoak ziren.

Alex Mungia: Eta bazeuden sekulan ikasiko ez zutenak ere.

Jokin Ansorena: Baina orokorrean jendeak hizkuntza ezagutzea zuen helburua, baita ongi pasatzea ere. Oso fama ona geneukan.

Iñaki Pikabea: Eta batzuek ikasi zuten taldean kantatzen, bizitzan sekulan ez zutelako kantatzen.

Alex Mungia: Nik kanta batzuk badakizkit, irakatsi egiten genituelako. Bertso bat ere ikasi nuen Alkizan, dakidan bakarra. Bertso harekin herriko gazteei erronka bota, eta haiek erantzun.

Nire irudi bat da hauxe: gu, ostatuan, bazkaltzen-edo, mahai luze batean, eta Lete eta gizon talde bat barran, guri begira. Desafioa bota, eta azkenean bertakoen eta kaletarren arteko apustua. Baina giro onean azkenerako.

Jokin Ansorena: Bitxikeria bat ere konta daiteke. Alkizakoa zen Euskadiko Ezkerrak zuen alkate bakarra, Antonio. Legealdi dezente egin zituen. Eta Alkizan abiatu zituen EEk bere kanpainak. Urtero irabazten zuen Antoniok. Lider bat zen.

Alex Mungia: Antoniok irabazten zuen; hau da, pertsonak. Horrelako herri txikietan halaxe izaten da.

Jokin Ansorena: Gogoan dut ere bi familia galego zeudela orduan Alkizan.

Haietako baten semea nire lagun batekin ezkonduta dago.

Iñaki Pikabea: Nik beste bat dut buruan. Behin, bertako gizon batekin aritu nintzen hizketan, 50 urte inguru izango zituen. Handik gutxira Pepe Aranzabe *Pinotxo* zinegotziarekin topo egin, eta «ikusi zaitut galegoarekin hitzketan» esan zidan. Eta ni euskaldun petoa zelakoan. Gerora kontatu zidaten haren istorioa. Bost sei urterekin-edo etorri omen zen Galiziatik Alkizara. Eta euskaraz egiten zuen nik baino hobeto.

Beste anekdota bat, hauxe. Niri esana zidaten zerbait behar izanez gero *Pinotxo*rengana jotzeko. Estankoko semea zen. Joan nintzaion behin, kezkatuta, ez bainintzen ausartzen *Pinotxo* deitzen. «Aizu, Joxe Mari», esan nion, eta hark niri: «aizu, niri ez deitu Joxe Mari eh, niri *Pinotxo* deitu». Oso harro zegoen izen horretaz.

Idoia Goñi

«Ikasleekiko harremana estu-estua zen, eta irakasleen artekoa ere bai»

Euskararen irakaskuntzan eman du bere bizitza laboralaren parterik handiena Idoia Goñik. 1990ean hasi zen horretan, hain zuzen orain zuzendari den euskaltegi berean. Eta barnetegietara ere zabaldu zen bere esperientzia. 1997an heldu zen Alkizara, irakasle gisa. Lehen barnetegia zuen berak; helduen euskalduntzeari eskainitako azkena, berriz, Alkizako herriak.

1997an iritsi zinen Alkizako barnetegira. Zein zen panorama?

Txanda hartan bi irakasle joan ginen, bakoitza talde banarekin. Erretore Etxean hartzen genuen ostatu. Gela handi bat zegoen, ez dut gogoan nola egiten genuen lo; literatan, zakutan... Beste gela txikitxo bat ere bazegoen, irakasleentzat. Iritsi ginenerako, dutxak-eta baziren. Aurretik, Garbiñe Lizarraga irakasle erretiratuak esanda, denek toki berean egiten zuten lo, eta dutxatzera apaizaren etxera joan behar izaten zuten; haren baineran dutxatzen ziren.

Gosaria bertan egiten genuen. Sukalde bat zegoen, eta txandaka gosaltzen genuen han. Otorduak, berriz, ostatuan egiten genuen. Garai hartan Jexux delako gizon batek eramaten zuen. Bi taberna zeuden Alkizan, eta guk horietako batean egiten genituen otorduak.

Besteari ere egingo zenioten gastua.

Jakina, poteak hartzen genituen batean eta bestean.

Zer-nolako esperientzia izan zen hura zuretzat?

Oso ona, oso polita, baina oso intentsua. Bakarrik egoteko minutu bat ere ez genuen hartzen. Elkarrekin egiten genuen dena.

«Kultur kontraste handia zegoen, eta, hala eta guztiz ere, oso ona izan zen gure arteko harremana beti. Oso nahasketa ona sortu zen»

Nekagarria ere izango zen.

Orain, gogoratuta, hala iruditzen zait, edo irakurketa hori egiten dut, baina orduan ez zitzaigun nekagarria iruditzen. Aldiz, oso intentsua bai.

Irakasle gisa, zer sentsazio sortzen du barnetegiak? Errazago sumatzen zaie ikasleei aurrerabidea?

Bai, zalantzarik gabe. Sei orduz ematen genituen eskolak, lau goizean eta bi arratsaldean. Horiek euskaltegian bezala izaten ziren, nahiz eta arratsaldeetako saioak ludikoagoak izan. Egiten genuen, esaterako, aldizkaritxo bat, eta barnetegiko txutxu-mutxuak idazten genituen bertan. Edota hosto bila joan eta herbarioak osatzen genituen. Irrati saiotxoren bat ere egin genuen. Eta ondoren, inguruko festa guztietara joten ginen. Autoak hartu eta segi. Ikasleak euskaraz ari zirela ikusten zenuen, eta hori gauza ikaragarria zen. Lehen egunean imajinatu egin behar izaten zenuen, eta laugarrenean euskaraz erabat murgilduta ikusten zenituen. Asko aurreratzen zuten.

Horrek aparteko lana ere eskatuko zizuten irakasleei.

Bai. Dena oso ondo prestatuta eramaten genuen euskaltegitik, eguneroko eskola magistralak alegia. Baina hortik kanpo, eskolan bertan egiten genituen ekintzek eta gainerakoek lana eskatzen zuten, baita bat-batekotasuna ere.

Arratsaldeetan, siestak zirela eta, denak

ez ziren klasera joaten, eta joaten ziren horiek saritzeak ere ahalegina eskatzen zuen, eta bai eta bat-bateko inspirazioa ere. Prestatutako ariketa egiteak nagia ematen baldin bazuen, beste zerbait asmatzen genuen: jolasak, mahai jokoak...

Zer eskaintzen zuen barnetegiak, euskaltegiak eskaintzen ez zuenik?

Euskaraz bizitzea.

Gelan jasotako *input* guztiak etxera eramaten ditu euskaltegira doan jendeak, eta han, bakoitzak bere martxa izaten du. Barnetegian, berriz, *input* horiek guztiak jaso eta gainera euskaraz bizi ginen.

Ikasitakoa garatzen eta martxan jartzen jarraitzen zuten, elkarrekin egiten genuelako dena : bazkaldu, parranda...

Asko ligatzen zen barnetegietan.

Hala da, ez da inongo sekretua. Gure taldean ere gertatu zen halakorik.

Ondo konpontzen al zineten herriko jendearekin ?

Bagenuen harremana, baina batzuekin; tabernetan ibiltzen ziren gizonezkoekin, egia esanda. Apaizarekin ere bai. Ikasle asko joaten zen frontoira, pilotan-eta aritzera, eta halakoetara hurbiltzen zen apaiza.

Urte asko eman dituzu Ilazkin. Zer alde sumatzen duzu hasierako eta oraingo garaien artean?

Asko aldatu da dena. Sartu nintzenean alfabetatze talde bat eramaten nuen. Jada urteak eta urteak dira ez dugula halako talderik. Horiekin asko ikasi nuen. Garai hartan, euskaltegia bete-betea zegoen. Profilen politika puri-purian zegoen, orduantxe zen bolada, eta liberatu pila bat etortzen zen. Bestalde, gaueko zortzietatik hamarretara lepo edukitzen genuen euskaltegia. Eta hamarretan eskola amaitu eta pote bat hartzera joaten ginen gehienetan. Egunero. Akordatzen naiz ordurako Pasai Antxora etorria nintzela bizitzera, eta 11:45ean izaten nuela azken autobusa. Gaur egun, berriz, arratsaldeko 7etan bukatzen dugu, beranduenez.

Ikasleekiko harremana estu-estua zen eta irakasleen artekoa ere bai. Hori aldatzen joan da, gizartea aldatzen joan den bezala. Sekulako aldaketa izan da.

Ikasleen helburuak ere aldatu dira.

Praktizistagoak dira orain. Galdu da garai hartako euskaldundu nahi hori.

Ilazki bera ere aldatuko zen.

Sartu nintzenean 24 urte nituen. Irakasle beterano asko zegoen orduan. Garai txarrik ere izan dugu. Duela sei urte edo, irakasleen adinaren batez bestekoa oso altua zen. Ibilbide osoa Ilazkin emana zuen irakasle asko zegoen; baldintza kaskarretan lan egindakoak ziren asko, erre samarrak, enpresarekin aurrera egiteko indar gutxi zeukaten. Ez ziren urte atseginak izan. Oso ikuspegi diferentea genuen. Guk etorkizuna ikusten genuen, eta haiek, berriz, erretiroa hartzeko adinari begira jarrita zeuden. Ez genuen modu berean ikusten Ilazki. Horiek jubilatu ahala, gazteak sartu ziren eta Ilazki biziberritu egin da. Oso jende ona heldu da, ilusio handiarekin eta oso prestatuta. Beste profil batekoak dira. Nik ikasi dudan guztia Ilazkin ikasi dut. Gazteok beste modu batera datoz, eta oso onak dira.

Idoia Goñik, Ilazki euskaltegiaren 50. urteurreneko festan

Zure esperientzia luzeak ere balio handia izango du.

Uztarketa polita egiten dela esango nuke. Ilazki biziberrituta sentitzen dut, eta nire adineko lankideek ere horrela ikusten dute.

Zuek ere 50 urte bete dituzue. Zer moduz joan da ospakizuna?

Oso ondo joan da. Sortzaileetako batzuk etorri ziren, baita irakasle ohi dezente ere. Eta ikasleak ere integratu genituen ospakizunean. Goizean goiz hasita, mahai-jokoak, mintzodomoa eta gosaria egin genituen. Gero, kantu-jira Donostiako Alde zaharrean barrena. Ekitaldia ere ondo joan zen. Borobil atera zen eguna.

Ezin dugu ahaztu garai hartako Donostian, 1975ean, Amara zaharreko Landetxea haurtzaindegiaren babesean hamar lagun izan zirela amets bati hasiera eman ziotenak. Garai hartako irakasle aitzindari haiek gehienetan baliabide gutxirekin eta gau eskolen borondate hutsarekin gure hizkuntzaren transmisioari bide eman zioten. Haien jarduna ez zen lanbide soila izan, herrigintzarako konpromiso tinkoa izan zen. Gaur egungo Ilazki euskararen etxe hau eraikitzeko ezinbesteko oinarria.

Oinarrizko sendo horretatik abiatuta marraztu du Donostiako mapa auzoz auzo. Amara zaharretik, Idiakez kalera. Handik, grosera. Ondoren, Etxaide kalera, eta, azkenik, 83-84 ikasturtean, hona, Plaza Berrira.

Eta bada herriz herriko mapa ere, hainbat udatan egindako barnetegiek marraztutakoa. Gabiria, Zegama, Alkiza eta Leitza.

Bidean, 40.000 ikasle inguru euskaldundu ditugu. 300 irakasle baino gehiago pasatu dira guretik. Gaur egun 900 ikasle baino gehiago ditugu, eta 27 langile gabiltza bertan. Irakasleek euskara irakasteko ofizioa erabat bereganatua dute, prestakuntza osoa eta dedikazioa tarteko.

Joseba Urzelai

«Harrera ezin hobea sentitu genuen lehen egunetik»

Gogoeta bat

Ahaztu gabe, ziurrenik, garai hura erabat idealizatuta dugula, gaur egunetik begiratuta, garbi dago erabateko esperientzia izan zela bertan ginen guztiontzat, irakasle nahiz ikasle. Fisikoki oso nekagarria (eskola orduak, hitz egiten asma ezinean emandako elkarrizketak, parranda tarte buka ezinak – ikastaroak iritsi arte Alkizako tabernetan ez zegoen xanpainik hozkailuan sarturik; gero bai, lo gutxi ...), baina bihotzez guztiz pozgarriak.

Austeritate osoko baliabideak genituen, umeentzako aulkietan eseri behar izatetik hasita, literatan edo lurrean zabaldutako esponja-koltxoietan lo eginez, eta abar. Eta horrek ezinbestean lagundu egiten zuen denon arteko adiskidantza eta elkartasun giro ahaztezin bat sortzen. Kontuan izan behar dugu, baita ere, noski, ikastaro horietara hurbiltzen zen jendearen jarrera ona. Izan ere, bakarren batzuk kenduta, gehienak lanean hasiak ziren, eta oporretarako zuten hilabetetik hartutako hiru aste eskaintzen zizkiotela ikastaroari (horrek ere bazuen zerikusia, xanpainarekin).

Herriko jendearekin ere, harrera ezin hobea sentitu genuen lehen egunetik, eta, zalantzarik gabe, horrek eragin oso ona zuen ikastaroaren giro orokorrean. Nolanahi ere, gaurko ikuspegitik, aitortu beharra dago, une hartan gehiegi arduratu ez bagintuen ere, tabernetako Maritxu eta Ixabel (Ixabel Urruzola, Elizegi tabernako etxeko andrea) paregabeez eta haien alabez aparte, batez ere, herriko mutilekin eta umeekin izan zela harremana, haiek zirelako plazara gehien hurbiltzen zirenak —garaien kontua izango da—. Geu

«Bakarren batzuk kenduta, gehienak lanean hasiak ziren, eta oporretarako zuten hilabetetik hartutako hiru aste eskaintzen zizkioten ikastaroari»

«Bai orduan eta bai gaur eguneko begiradarekin, euskara ikasketan eta hitz egiteko ahaleginean horrelako murgiltze ahalegin bat egitearen emaitza guztiz baikorraren sentipena aipatu beharko genuke»



ikastaroko talde bezala, genero aldetik, baliteke emakumezko gehiago izatea, baina nahiko talde orekatuak zirela esango nuke.

Baina horri guztiari benetako zentzua emateko, bai orduan eta bai gaur eguneko begiradarekin, euskara ikasketan eta hitz egiteko ahaleginean horrelako murgiltze ahalegin bat egitearen emaitza guztiz baikorraren sentipena aipatu beharko genuke.

Esan beharrik ez dago, guztiengan ez zuela eragin berbera izango, baina hiru astez ahalegin horretan aritu ondoren, garbi dago euskararekiko harreman sakona barneratzen zela, neguko eskola ordu soiletan sentitzea oso zaila den neurrian. Eta, nola ez, hori oso nabarmena zen hurrengo ikasturteko eskola orduetan eta ikasleen arteko atariko harremanetan, euskarara jotzeko jarrera eta ahaleginean.

Esango nuke, gaur egungo gizartea eta ohiturak kontuan izanik, ez dela erraza garai hartan bezain erraz osatzea halako barnetegiak, baina gaur egun ere, antolatzen diren moduan antolatzen direla, sekulako mesedea egingo die euskararen ikasketari eta, batez ere, erabilerari.

Anekdota bat

Ikastaroetan ikasle guztiak ez ziren maila berekoak izaten. Horrela, 4. mailakoak, hau da, garai hartan maila gorenekoak zirenak, eta ikasturte bat soilik zeramaten lehen mailakoak elkarrekin egoten ziren (guztira 30 lagun inguru izan ohi ginen — hiru talde—).

Esan gabe doa, batzuen eta besteen ahalegina eta nekea oso ezberdina zela, 24 orduak euskaraz emateko eta elkar ulertzeko. Lehen mailetakoak, noski, askoz imintzio eta keinu edo gorputz adierazpen handiagoekin.

Eta halako batean, ari ziren 4. mailako bat eta lehen mailako bat. Behe mailakoa auskalo nola, eta goi mailakoa dezentez lasaiago eta aurrean zuenaren zailtasunez asko jabetu gabe.

Maila apalekoak, azkenerako, gehiago ezin eta etsipenaren mugak gaindituta-edo, honelaxe bota zion iradokizuna..... «*Saca las manos del bolsillo, jode!!, que no te entiendo nada!!*».

Bizipen bat

Halako batean, ikastaroan lagun bat zuela-eta, Joxan Artze bisitan etorri zen Alkizara, eta arratsalde bat eman zuen lagun horrekin eta ikastaroko hainbat kiderekin hizketan-edo, eta afaltzera ere geratu zen.

Hain erasanda geratu zen arratsalde eta afari hartan ikusi eta bizitakoarekin, non erabaki zuen nolabait jaso behar zuela bizipen hura, hau da, talde giro hartan, hizkuntza bat menderatu nahi eta ezin horrek transmititzen zuen indarra.

Horrela, bere grabaketa baliabide nahiko landuak hartu eta han azaldu zen hurrengo hilabetean Gipuzkoako Gaintza herrian egiten ari ginen ikastaroan. Grabaketa nahiko luze bat egin zuen, baina, gerora ez dut jakin izan grabaketa haren zatiren bat bere ikuskizunen batean erabiltzera iritsi ote zen.

«Genero aldetik, baliteke emakumezko gehiago izatea, baina nahiko talde orekatuak zirela esango nuke»

Jose Mari Aranzabe *Pepe*

«Herriarentzat laguntza inportantea izan zen barnetegia»

Alkizako Elizegi taberna-baserrian sortu zen. 1983an hasi zen zinegotzi lanetan, 28 urte zituela. 43 urte daramatza horretan, baina jarraitzeko asmoa du, «etxebizitza proiektua amaitu arte behintzat». «Beharra zegoelako» hasi zen langintza horretan, baita «lagunengatik» ere.

Zer oroitzapen duzu barnetegiez?

Ilazki euskaltegia etorri zen 1979an. Udan egiten zituzten egonaldiak, uztailean eta abuztuan. Barnetegian lo egiten zuten, eta klaseak eskolan izaten ziren. Otorduak, berriz, tabernan.

Herriarentzat laguntza inportantea izan zen barnetegia. Aldiko talde handi bat etortzen zen, klase guztietakoa, eta futbol partidak antolatzen genituen txanda bakoitzean: herrikoak barnetegikoen kontra. Zegaman ere bazegoen beste barnetegi bat, eta haiek ere etorri izan ziren futbolean aritzera. Festa ederra izaten zen horrelakoetan. Hori laguntza inportantea zen herriarentzat.

Oso festazaleak omen ziren.

Gogoratzen naiz txanda batekoak Larraulgo festetara joan zirela eta han txerri harrapaketan parte hartu zutela. Baita irabazi ere! Ekarri zituzten bi txerri, eta alkatea eta biok geratu ginen Añorgako Unanue okindegira erretzera eramateko. Hurrengo larunbatean ekarri eta bazkaria egitea zen plana. Añorgara joan ginen, hartu genuen materiala eta Guardia Zibilaren kontrola ikusi genuen. Orduan, esan genuen: «Aietetik joango gara». Eta han, beste kontrol bat. «Baietz gu geratu», esaten zion batek besteari, eta «ezetz» besteak. Ni kontrol guztietan geratu naute.

«Gogoratzen naiz txanda batekoak Larraulgo festetara joan zirela eta han txerri harrapaketan parte hartu zutela. Baita irabazi ere!»

Eta euskal girotze barnetegiez zer diozu? Alderik sumatzen al zenuten batzuen eta besteen artean?

Hasi zirenean bi asteko egonaldiak egiten zituzten. Toki askotako eskoletatik etortzen ziren, Arabatik, Bizkaitik... Bizkaitarrak harroxkoagoak izaten ziren beti, eta arabarrak ondo heziak. Gipuzkoakoak ere nahiko ondo heziak.

Nire lehengusu batek Nafarrekin batera antolatzen zituen udako egonaldiak. Nafarroa osotik etortzen ziren, 6 txanda edo. Ikastolako umeak izaten ziren, txikienetatik hasi eta 13 edo 14 urte bitartekoak. Erretore Etxeko barnetegian egiten zuten lo, eta jatera, batzuetan tabernara, eta beste batzuetan catering zerbitzuarekin konpontzen ziren. Diruz nahiko justu ibiltzen ziren, eta gurasoak ere askotan etortzen ziren.

Alkizara heltzen ziren ikasleek ikasten al zuten euskara egonaldietan?

Ikasi ez, baina praktikatu bai. Klaseak bukatzean batzuk erdaraz hasten ziren. Baina saiatzen ziren euskaraz egiten.

Apaizarekin harreman oso ona zegoen, eskola debalde uzten zien.

Baduzu anekdotarik gogoan?

Adiskidetasun handia genuen orain hil berri den monitore batekin, Imanol Lizardirekin. Oso jatorra zen. Eta erabat inplikatuta zegoen, herriarekin eta denarekin. Antzerkiak egiten zituen, eta grabatu ere bai. Behin, aktore izateko

ikasten ari zen bat etorri zen, eta ikusi zituen basoan grabatzen ari zirela, eta esan zuen: «Zer gaizki ari diren!»

Badut beste anekdota bat, etxean egindako hobekuntzak direla eta Gertatutako zerbaiten ondorioz leihoei segurtasun burdinak jarri zizkieten. Etorri zen Manuel Lasarte bertsolariaren semea, Eusebio Oriokoa. Barra horiek jarri zituzten borobil batekin, eta orduan leihoak ezin ziren itxi. Deitu behar izan zioten arduradunari, eta azkenean, lehenbizi muntatutako barrak kendu eta berriak jarri behar izan zituzten. Borondate onez egin zuten, bola horrekin dotoreago izateko, baina leihoak ezin itxi.

Azkenean, Alkizako euskal girotze barnetegiak bertan behera gelditu ziren.

Ia beharra izan zen hori, eskola berria egiteko, lehengo zaharra bota egin baikenuen. Orduan etxea ia osorik Gipuzkoako Eliz Barrutiarena zen, eta orain gurea da.

«Euskal girotze barnetegietan, klaseak bukatzean batzuk erdaraz hasten ziren. Baina saiatzen ziren euskaraz egiten»

TLAZKIKO TALI
TLIMATXA

Itxaropenez

(1990–2017)

Euskal girotze barnetegien txanda: dibertituz eta olgetan, haurrak euskarara ekartzeko erronka.

Aitor eta Jon Roteta

Antzieta baserriko semeak eta euskara barnetegiko laguntzaileak

«Baserriko usainak harritzen zituen ikasleak, batez ere neguan»

«Baserriko usainak txunditzen zituen ikasleak. Batez ere neguan, abereak etxe barruan izaten baitziren»

Gazte ginenean izan genuen harremana euskal girotze barnetegiarekin. Eskoletatik etortzen ziren euskara ikastera, eta herriko plazan eta frontoian elkartzen ginen haiekin, bertako maisu-maistrekin, batik bat Agurnerekin. Hura gure andereñoa izan zen, eta hortik zetorren harremana. Mutil koskorrak ginen, 11 edo 12 urte izango genituen.

Gogoan dugu nola etorri zen Joxe [Aldasoro] apaiza, esanez umeek baserrian bisita batzuk egitea nahiko luketela, eta ea prest egongo ote ginatekeen erakusteko. Hamabostean behin ordubeteko saio bat egitea proposatzen zigun.

Bi taldetan banatzen genituen ikasleak. Bat izaten zen baserri barrukoa erakusteko; ukuilua, txerriak, behiak, momentu horretan baserrian zeuden animaliak; eta nola jaten zuten, nola egiten zen lan haiekin. Aitorrek hartzen zuen horren ardura. Beste taldean, berriz, baratzeko gauzei jartzen zieten arreta, eta Jon arduratzen zen gauza horiek irakasteaz.

Baserriko usainak txunditzen zituen ikasleak. Batez ere neguan, abereak etxe barruan izaten baitziren. Belar zulokoa ateratzen zenean usain fuertea egoten zen, eta umeak sudurra tapatuta egoten ziren. Guri normala iruditzen zitzaigun eta ez zigun ezertan eragiten, baina zenbaiti oso fuertea egiten zitzaion usain hori.

Eleni Saizar

«Azkenean familia osoa inplikatu ginen lan horretan»

Hamazazpi urtez aritu zen euskal girotze barnetegien mesederako lanean. Harremanetarako eta umeekin konektatzeko duen gaitasunari esker, pieza garrantzitsua izan zen taldeen funtzionamenduan. Garbiketa eta harrera lanetan aritu zen lehendabizi, eta ardura handiagoak hartu zituen gero, batik bat Joxe Aldasoro apaiza hilez geroztik.

Gogoratzen al duzu zein izan zuen hasiera umeen barnetegiak?

Egun batean, Eusko Jaurlaritzatik bi gizon etorri ziren, Alkizan barnetegi bat ireki nahi zutela esanez. Etxe baten bila zebiltzala esan zigutenean, Erretore Etxea horretarako prest zegoela aipatu genien. Hura ikustera joan, eta martxan jarri zuten barnetegia. Txukunketa bat egin zuten lehenik, obra txiki bat, eta hortxe hasi zen barnetegia. Hasieran solairu bateko barnetegia zen. Gerora, ganbara eta abar ere egokitu ziren horretarako.

Hasieratik parte hartu zenuen?

Garbitzailea izan nintzen hasieratik. Gainerako gauza guztiak apaizak egiten zituen. Baina apaiza hil egin zen, eta orduan nik hartu nituen berak egiten zituen lanak. Nire ardura izaten zen umeak etortzerako etxea prest izatea, beti jakinda zenbat ume etorriko ziren eta ume berezirik ba ote zen. Etxea prest eta garbi eduki behar izaten nuen ume horiek etortzerako. Horixe zen nire lana.

Hasieran solairu bateko etxea zen, baina gero ganbara ere atondu zuten, eta behealdea ere bai. Gero eta gauza gehiago zegoen egiteko. Gaueko ardura ere hartu nuen halako batean; umeren bati zerbait gertatzen ote zitzaion begiratu behar izaten nuen, edo irakasleek laguntzarik behar ote zuten.

«Garbitzailea izan nintzen hasieratik. Gainerako gauza guztiak apaizak egiten zituen. Baina apaiza hil egin zen, eta orduan nik hartu nituen berak egiten zituen lanak»

Otorduez ere arduratzen zinen?

Gurasoek taberna zeukaten, eta otorduak egitera hara eramanda, dena lotuta uzteko aukera izan genuen. Egiten zuten gosaria, bazkaria, askaria eta afaria. Barnetegiko garbiketa egin ondoren tabernara joaten nintzen otorduak prestatzera eta antolatzera. Baina ni bakarrik ez, azkenean familia osoa inplikatu ginen lan horretan: nire ahizpak, gurasoak, anaia...

Harreman ona izan zenuen umeekin?

Asko disfrutatu nuen, bai barnetegiko zereginekin, bai eta jangelarekin ere. Gazteekin sortzen zen harremana zoragarria zen. Gainera bazeuden irakasle batzuk urtero errepikatzen zutenak. Beste haur batzuekin etortzen ziren, noski. Urte horietan guztietan sekulako harremana sortu zen denon artean, eta oraindik ere badut harremana irakasle batzuekin. Umeak asko gustatzen zaizkit eta barre asko egin dut haiekin.

Denen izenak ikasten zenituen?

Banuen ohitura bat: umeak astelehen batean iristen ziren, eta hasten nintzen umeei euren izenaz galdetzen. Gauza bat eta bera eskatzen nien beti: «Bihar ere toki berean eseri», esaten nien. Astearte gauerako banekizkien denen izenak.

Irakasle batek hiru hilabete zeramatzan ume haiekin, baina oraindik ez zekizkien izenak eta umeak lekuz aldatu zituen. Zera bota zidan: «Esan orain umeen

izenak». Eta ongi esan nizkion denak, banan-banan. «Benetan ezagutzen dituzu umeen izenak?», galdegin zidan txundituta. Beretzat harrigarria zen egun batean 35 haurren izenak ikastea.

Anekdotarik baduzu gogoan?

Bitxikeria bat bai. Beti etortzen zen xelebreren bat. Behin, ume batek eskua altxa eta galdetu zidan: «*¿Qué tenemos para cenar?*». «Zopa eta arraina», erantzun nion. Eta hark: «*No puede ser*». «Zer ba?», eta «*Los cubiertos que tenemos no son de pescado*» bota zidan. Horrelako bitxikeriak.

«Barnetegiko garbiketa egin ondoren tabernara joaten nintzen otorduak prestatzera eta antolatzera. Azkenean familia osoa inplikatu ginen lan horretan: nire ahizpak, gurasoak, anaia...»

Bukatu zenean, lanik gabe geratu nintzen; 57 urte nituen. Ez dakit beste era batera egin ote zitekeen bukaera, baina oso gogorra izan zen, bat-batean bukatu baitzen»

Beste bitxikeria bat gertatu zitzaigun igarkizunekin. Nire aitak Segundo zuen izena, eta horrekin jolas bat egiten genuen. «S-rekin hasten da eta O-rekin amaitu» eman nien pista bezala, eta batek «Sementerio» esan.

Tabernako horman bi argizaiola genituen, beren argizariarekin. «Badakizue zer den hau?» galdegiten genienean, askok dinamita zela erantzuten zuten.

Beste ume batek afaltzen ari ginen batean dirua atera zidan eta zera esan: «*Oye yo quiero comer todos los días con Coca Cola eh*». Esan nion ezin zela, besteek zer esango ote zuten eta horrelako kontuak esan nizkion.

Gogoan dut etorritako irakasleetako bat Hermano zela. Ez zen apaiza. Hark eskatu zidan laguntza ikasleei mototsak, txirikordak eta horrelakoak egiten. Goizago joaten nintzen, umeak orraztera eta mototsak eta txirikordak egitera, gosaltzera txukun-txukun joan zitezen. Lan asko bete nituen.

Imanol Lizardi izan omen zen barnetegiko urte guztiak bizi izan zituen bakarra. Nolakoa zen?

Kristoren pena hartu nuen hil zenean. Hura zen barnetegiko *alma mater*. Gizon ona zen, kristoren harremana zuen umeekin. Adibidez, barnetegian telebista normala zegoen, eta horretan futbol partida bat ikusteko aukerarik ez bazegoen, etxera eramaten zituen ume denak. Lasartekoa zen berez, eta barnetegiko lana hartu

zutenean, Alkizara etorri ziren bizitzera hura eta bere familia. Haien mutikoak, Tomasek, urtebete edo bi urte izango zituen. Hasieratik bukaerara arte, bera egon da beti hemen. Barnetegiko urte horiek denak bizi izan dituen bakarra da. Zoragarria zen.

2017an Hondarribira aldatu zen Alkizako barnetegia. Zer izan zen hori zuretzat?

Lanik gabe geratu nintzen, eta 57 urte nituen. Ez dakit beste era batera egin ote zitekeen bukaera, baina oso gogorra izan zen, bat-batean bukatu baitzen.

«Asko disfrutatu dut, bai barnetegiko zeregin ekin, bai eta jangelarekin ere. Gazteekin sortzen zen harremana zoragarria zen»

Iñaki Artola

«Funtzionarioek bihotza jarriko ez balute bezala hitz egiten da, baina guk bihotza jarri genuen»

Joxe Mari Berasategirekin batera jarri zituen martxan Iñaki Artolak euskal girotze barnetegiak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailera iritsi berriak zirela heldu zioten langintza horri, eta Agustin Mujika *Takolo*-ren bultzada ere izan zuten, umeen euskarazko aisialdian buru-belarri ari baitzen ordurako. Artola Donostiako Larratxo auzoko eskolan ari zen irakasle 1982an, eta dena utzita joan zen Hezkuntzara, behar bati erantzuteko gogoz eta ilusioz.

Mintza gaitezen euskal girotze barnetegien sorreraz. Zein zen testuingurua?

1982ko Euskararen Legeak dio administrazioak, euskara erakusteaz gain, giro aproposak eskaini behar dizkiela umeei; eskola giroa euskalduntzearen beharraz ari da nolabait. Bi lanpostu sortu ziren Hezkuntzak atal horri hel ziezaion, eta bi lankide elkartu ginen horretan: Joxe Mari Berasategi eta biok.

Eta oso bitxia da, legearen euskarazko testuan «eskola giroa» aipatzen baitu, eta gaztelaniaz, berriz, «el ámbito escolar». Gu Mikel Zalbideren agindupean ari ginen, eta hark Salomonena egin zuen: bi adar sortu ziren. Adarretako bat hezkuntza administrazioaren euskalduntzeaz arduratzen zen, eta bestea eskola giroaren euskalduntzeaz. Horregatik eman zitzaion Nolega izena —Normalizazio Legearen Garapena—. Kontuan hartu behar da ez zela hizkuntza profilik ez deusik existitu 1987ra arte, eta hemen 1982az ari garela.

Hortaz, huts-hutsetik abiatu zineten?

Hain zuzen. Hainbat proiektu bota ziren han, eta esango nuke haietarik asko gauzatu zirela. Ez dut imajinatzen halako aukerarik gaur egun. Normalean, lanpostu batera joan eta dena eginda aurkitzen duzu, oso aukera gutxi daukazu sortzeko. Momentu hura giltzarria izan zela esango nuke. Dena egiteko zegoen, administrazioa bera berria zen, eta beste ilusio bat zegoen. Gainera arintasun handiagoa zegoen gauzak egiteko. Zorte onekoak ere izan ginen, Itziar Idiazabal hizkuntzalaria baitzegoen zuzendari moduan. Haren babes osoa izan genuen gauzak martxan jartzeko.

Nolega programa aipatu duzu. Zer da?

Urtero eskolei bidaltzen zaien programa bat da. Hor azaltzen da dena, nagusiki zer aukera dauzkaten eskolek. Programa horretatik sortu ziren hizkuntzaren normalizaziorako programak, Uribarri deitu direnak. Eskolaz kanpoko ekintzak ere sartzen ziren: antzerkigintza, bertsogintza, kantagintza edota : Idazleak Ikastetxeetan programa eta gisakoak; gauza horiek denak.

Euskal girotze barnetegiak ere hortik datoz?

Barnetegia sortzea lehenengotako gauza bat izan zen, eskola giroaren barruan kokatua. Funtsean, aukera eman nahi zitzaien umeei astebete-edo euskal giroan murgilduta pasatzeko.

«Egonaldia eta gero, ikastetxeekin harremanetan jarraitzen genuen. Eta esaten zigutenez, barnetegian gora egiten zuen erabilerak, baina barnetegitik itzuli orduko, lehengo lepotik burua. Gure etengabeko hausnarketa horretan, porrot moduko bat zen hori, ez baikenuen ezer sendorik lortzen»

Zuen ideia izan zen?

Berastegi eta bion artean sortutako ideia bat izan zen, bai, baina Agustin Mujika *Takolo* ere horretan zebilen. Hura, oker ez banago, Lasarteko eskola batean ari zen lanean, eta bazuen proiektu bat Amezketan barnetegi bat jartzeko. Hezkuntza Sailera etorri zen gai horrekin, eta esan genion: «Hara, ba gu ere bagabiltza gai horrekin». Eta atera zen. Izan zen Zornotzako bidean dagoen etxe batean, Euba auzoan. Foru Aldundiarena zen orduan ere. Hor izan zen lehen Euskal Girotze Barnetegia, 1985-86 urtean.

Gogoan dut hiru irakasle izan zirela eta bi aste oso pasatu zituztela han, asteburu

eta guzti. *Takolo* ere han zen, Lasartetik etorrita. Hura, gainera, hantxe gelditzen zen gauetan.

Gida moduko bat ere argitaratu zenuten barnetegien lana laguntzeko.

1987an, oker ez banago. Jolas metodologiak, ariketak eta horiek guztiak azaltzeko helburuz egin zen. Asko erabiltzen zen hori, bai barnetegietan, bai Foru Aldundiek antolatutako udalekuetan, bai eta Urtxintxak egiten zituen irteeretan ere.

Girotze barnetegi horiek B ereduko ikasleentzat izaten al ziren?

Bai. Gero, sozialistak etorri zirenean, A eredurako ere izatea nahi izan zuten. Gaztelun egin zen hori. Gero horrek bukatu zuen Seguran, Foru Aldundiaren etxean, eta Seguratik Zeraineko aterpetxera aldatu zen. Alkizakoa 1990-1991 ikasturtean sortu zen. Hainbat urteren ondoren, Hondarribian amaitu zuen Alkizakoak.

Zenbat euskal girotze barnetegi daude gaur egun?

Sei daudela esango nuke: Zerainen, Lemoizen, Hondarribian, Elgoibarren, Barrian eta Gorozikan.

Nolatan Alkizan?

Etxeak non zeuden bila aritzen ginen, eta hala, Erretore Etxearen berri jakin genuen.

«2005eko inguru inguru horretan, irakasleak gogotik ari ziren lanean, baina nolabait ikusten genuen bide horrek eman beharrekoa emana zuela. Hala, hogeitik gora lagun prestakuntza trinko samar bat egiten hasi ginen»

«Alferrik da zuk portaera bat aldatu nahi izatea, portaera horren atzean dauden sentimenduak, emozioak edota sinesmenak aldatu gabe. Eta horretan hasi ginen 2007. urtearen inguruan»

Udako kontu batzuetarako erabiltzen zen etxe hori. Hango apaizarekin egin genuen harreman ia osoa, Joxe Aldasororekin. Eta hura pozez zoratzen zegoen, halako zerbait hartzeko gogoz. Nekatuta zegoen egoeraz: uda bakoitzeko dena prestatu ikasle helduak hartzeko, eta hamabost egun edo hilabetera berriro dena hutsik.

Nolakoa izan zen etxea lortzeko tratua?

Gotzainarengana joan eta han elkarrizketak eta kontratuak egin behar izan ziren. Orduan konturatu nintzen elizan ere bazirela diru-gizonak, eta ez nolanahikoak. Negoziazioa oso gogorra izan zen momentu jakin batzuetan. Orduko Alkizako alkatea ere tartean izan zen, baina harreman handirik ez genuen izan. Hura ere konforme zegoen gure planarekin. Gero, gelditzen zen gauza bakarra otorduetarako toki bat bilatzea zen, eta hori ere lortu genuen: Otsamendi ostatuarekin egin genuen tratua. Eta ostatuko alaba, Eleni, zaindari eta garbitzaile lanetan aritu zen.

Irakasleak ere hartu behar ziren. Takolo Bizkaian zen orduan, baina Alkizara joateko prest agertu zen. Hark Imanol Lizardi konbentzitu zuen; Belauntzan zegoen, baina animatu zen hura ere. Uste dut urte hartan bertan Alkizara bizitzera joana zela, etxe bat erosita. Hirugarren irakaslea Agurne Izagirre izan zen. Orduan gazteak ziren.

Intuizio hutsez arituko zineten hura guztia antolatzen.

Bai, baina hasieratik oso garbi geneukan ez zela hamabost eguneko barnetegi bat edo bost eguneko egonaldi bat; ez zela hori. Nahi genuen ikertu, erabileraren gaian ikasi eta gero eta hobeto egin.

Eta, gainera, emaitzak atera.

Alde horretatik, elkarlan handia izan da barnetegi guztien artean; hausnarketak, bilerak...denetik egin da. Ikusi besterik ez dago nola joan ziren gauzak ateratzen. Eta bilakaera bat ere izan da.

Euskara sustatzea zen barnetegien helburua, baina zein zen oinarria?

Barnetegiek erabiltzen zuten metodologia konduktibismo positiboan oinarritzen zen. Zera pentsatzen genuen: barnetegian egonaldi oso atsegina izango dute, izugarri ondo pasako dute, eta horrek zerbait utziko die. Portaera bat lortzea izaten zen helburua, horren atzetik erabilera etorriko zela uste genuen. 1985eko kontuekin ari naiz.

Zer amets proiektatzen zenuten euskal girotze barnetegi horietan? Erabilerarako esperantza aipatu duzu. Eperik ikusten zenioten horri? Zer nolako planak zenituzten?

Egonaldiak izaten ziren bost egunekoak eta hamabi egunekoak. B eredukoei hamabikoak eskaintzen zitzaizkien, Alkizan eta Plentzian. A eta D ereduko ikasleei, berriz, bost egunekoak.

Batzuk eta besteak erabilerari begirako

«Astelehenetik ostiralera ez genuen erabileran ezer igartzen, sentimenduetan ordea bai. Baina esplika iezaiozu hori ezer ez dakien kargudun bati, hizkuntza alorrekoa ez den bati»

barnetegiak ziren, astelehenetik ostiralera gehiago egingo zuten helburuz. Urteen poderioz, zenbat gehiago egiten zuten neurtzeko erronkari ere heldu genion. Erakarpen handiko tresnak sortu ziren, besteak beste jolasak. Sekulako sormena jarri zen euskararen erabilera areagotzeko helburu horri begira. Neurketaren ikuspegirik, sekulako emaitzak izatera ere iritsi ginen, erabilerak dezente gora egiten baitzuen barnetegiak iraun bitartean.

«Erabakia izan zen Alkizan ez zela barrakoirik jarriko herriko eskolaren toki arazoa konpontzeko. Eta barnetegia Hondarribira eraman zuten. Nire ustez, akats handia izan zen hori, bai Alkizarako, bai barnetegirako, bai Hezkuntzarako ere»

Eta barnetegia bukatutakoan zer gertatzen zen?

Ikastetxeekin harremanetan jarraitzen genuen. Eta esaten zigutenez, barnetegian gora egiten zuen erabilerak, baina barnetegitik itzuli orduko, lehengo lepotik burua. Gure etengabeko hausnarketa horretan, porrot moduko bat zen hori, ez baikenuen ezer sendorik lortzen, edo lortzen ari baginen, ez genekien. Izan ote du horrek emaitzarik gerora, euskara ikasteko gogoan edo guraso euskaldun izateko gogoan? Ezin dugu jakin. Hori ez dago neurtzerik. Baina sorpresa handiak izan ditugu. Barnetegian egondako ume batzuk, adibidez, irakasle bezala etorri zaizkigu gerora.

Ikasleek urtean behin izaten al zituzten egonaldiak?

Bai, behin egiten ziren. Hezkuntzak apiril aldera egiten zuen deialdia, eta ekainean erabakia hartuta eta hurrengo urte osoa

planifikatuta egoten zen. Sekula ez genuen izan plazak betetzeko arazorik. Beti betetzen ziren.

Nolanahi ere, gaur gauza jakina da eskolak bakarrik ezin duela euskaldundu.

Hausnarketa hori jada egina genuen guk 1991n. Iñaki Arrutik egin zuen ezagun horko teorizazioa, eta piramide moduko bat erabili izan du horretarako. Baina berak askotan esan du gure liburutik hartu zuela hori.

Zer gertatu zen 2005eko inguru horretan? Bada, irakasleak gogotik ari ziren lanean, baina, nolabait, ikusten genuen bide horrek eman beharrekoa emana zuela, atera zitzaiola etekin guztia.

Hala, hogeitik gora lagun prestakuntza trinko samar bat egiten hasi ginen. Eta prestakuntza horretatik ateratako ondorioa zen traste guztiak bota behar genituela.

Alegia?

Ondorioztatu genuen ez zuela portaerak izan behar helburua; lilura behar zela. Gaztetxoak liluratu behar genituen, haiengana iritsi behar ginen, baina ez gauzekin. Bihotzetik iritsi behar ginen. Eta euskalgintzan ere hori izan da eskema gerora; iritsi behar ginela sinesmenetara, emozioetara.

Nola?

Metodologia aldatu behar zen. Beste era bateko ekintzak behar ziren erabat. Pentsa gerora zenbat aldatu diren gauzak etorkinekin eta abar. Baina gauzak nola diren: behar zen beraiena hustu.

Uribarri programa ari zen momentu horretan euskararen plan oso bat lantzen eskoletarako; 400 eskolan zeuden sartuta. Lore Erriondo eta Xabier Isasi zeuden tartean, eta Elhuyar ere sartu genuen aholkularitza horretan, bai Uribarri programan bai barnetegietan. Hauxe zen ildoa: alferrik da zuk portaera bat aldatu nahi izatea, portaera horren atzean dauden sentimenduak, emozioak edota sinesmenak aldatu gabe. Eta horretan hasi ginen 2007. urtearen inguruan.

Hortaz, eraldaketa zen helburua.

Bai pertsonarena bai eta taldearena ere. Barnetegiko bost egunetan martxan jartzen zena eraldaketa prozesu bat zen, bere ariketekin, bere gauzekin, bere zerekin. Ordura artekoa zen zein ondo sentitu naizen eta zeinen ongi pasatu dudan. Aurreko metodologiarekin ikus zitekeen emaitza balorazioetan, baina metodologia berriarekin ez. Astelehenetik ostiralera ez genuen erabileran ezer igartzen, sentimenduetan ordea bai. Baina esplika iezaiozu hori ezer ez dakien kargudun bati, edo hizkuntza alorrekoa ez den bati.

Barnetegietako egunak murrizten joan ziren. Lehenengoak 12 egunerokoa ziren, gero bost izatera pasatu ziren. Zergatik?

Horri ezin izan zitzaiolako eutsi, ez eskolatik etortzen ziren irakasleen aldetik, ez gure irakasleen aldetik ere. Eskolako irakasleek bere familia utzi behar izaten zuten taldearekin hamabi edo hamabost egunetarako barnetegi batera joateko. Eta asteburuetan ere lan egiten zuten. Horregatik bihurtu ziren bost egunekoak. Eta 2010 urtearen inguru horretan pasa ziren lau egunekoak izatera. Eskoletan gero eta zailagoa zen barnetegiak osatzea. Betetzen ziren, baina gogorra egiten zen. «Zergatik ez dituzue bi egunekoak egiten?» galdetzen zigun jendeak.

Bitartean, Joxe Aldasoro Alkizako apaiza hil zen. Pertsona garrantzitsua izan zen, erraza tratuan. Haren atzetik Felix Azurmendi etorri zen, baina hura ez zen bertan bizi, eta ez zen gauza bera.

Herriko jendearekin ondo konpondu zineten?

Otsamendi ostatua arduratu zen otorduez, eta beti erantzun zuen, nahiz eta batzuetan gorabeherak izan prezioekin eta abar. Aipatzekoa da, bestalde, etxe hartan diru asko jarri zuela Hezkuntza Sailak, batez ere konponketetan. Guk harreman zuzena mantendu genuen barnetegi guztiekin. Nik uste dut lagun mailako harremana izan zela beti. Ez zen goitik beherako harreman bat, erabat sartuta eta inplikatuta ibili ginen.

Urteak joan dira. Zer zapore utzi dizu ekinaldi honek?

Normalizazio Legeak erabilera aipatzen zuen. Momentu hartan, 1984an, erabilera ez zen gaia inon. Gero, gaia izan zen garaian, beste fase batera paseak ginen. Erabilera beste zerbaiten ondorio zen. Orain, Iñaki Iurrebasorekin eta Garikoitz Goikoetxearekin, gaitasuna da kontua. Esaten dute dauzkagun aukerak edukita nahikotxo erabiltzen dela euskara. Baina esaten ez dutena da zenbat ahalegin egin den erabilerari begira euskara zerbitzuetan, udaletan, udako kanpaldietan, programa honetan eta beste leku askotan. Eta, nolabait, erabileran ondo samar baldin bagabiltza, zerbaitengatik da. Bestela askoz okerrago egongo ginen horretan ere.

Aitortza falta nabari duzu?

Guk erruz egin dugu lan, baina administrazioko euskalgintza ez da ezagutua izan, ezta aitortua ere.

Funtzionarioek bihotza jarriko ez balute bezala hitz egiten da, baina guk bihotza jarri genuen. Garai hartan funtzionario egin ginenez ari naiz. Ni, esate baterako, Larratxoko eskola utzita joan nintzen Hezkuntzara. Gai hori izugarri interesatzen zitzaidan, eta eskolan ere ikusten nuen behar hori.

Mikel Zalbide aipatu dut lehen, eta gizon hori giltzarria izan da euskalgintzan.

Azkenean, Alkizako Erretore Etxeko barnetegia itxi zuten.

Ba, nik ez dakit zeinek egin zituen tratuak eta zein aritu ote zen udaletxetik, eskolatik edo Hezkuntzatik. Baina erabakia izan zen Alkizan ez zela barrakoirik jarriko herriko eskolaren toki arazoa konpontzeko. [illegible] Hondarribira eraman zuten. Nire ustez, akats handia izan [illegible] Alkizarako, bai barnetegirako, bai Hezkuntzarako ere. Barnetegi berri bat sortzea oso zaila da, eta mantentzea kosta egiten da. Hein batean, horregatik utzi nuen postu hori. Erretiroa hartu aurreko bost urteak eskola txiki batean eman nituen eta oso ondo pasatu nuen.

Agurne Eizagirre eta Agustin Mujika *Takolo*

«Ondo pasatuz euskararen alde motibatzea zen helburua»

Agustin Mujika *Takolo* (Lasarte-Oria, 1960). pailazo gisa egin zen ezagun Euskal Herri osoan, baina hori baino lehen ere gertu izan zituen umeak beti. Euskara barnetegietan hainbat urte eman zituen monitore eta irakasle.

Agurne Eizagirre (Lazkao, 1957) Lazkaotarra izanagatik ere, Alkiza du bizitokia aspaldidanik. 42 urte daramatza bertan. Erretiroa hartu baino lehen, haurren irakaskuntzan aritu da batik bat. Oroitzapen ederrak gorde ditu Alkizako euskal barnetegiez.

Nolatan hasi zineten irakaskuntza munduan?

Agustin Mujika: Oso pertsona lotsatia nintzen, eta hori dela eta, magisteritza ikastera animatu ninduen lagun batek. 17 urterekin heldu nien ikasketa horiei, eta hortik aurrera ikasi eta ikasi aritu nintzen beti. Geroztik, umez inguratuta bizi izan naiz, batez ere udalekuetan, Bernedon eta Goiatzen adibidez.

Agurne Eizagirre: Nik ez nekien zer ikasi. Urte haietan euskal irakasle asko behar ziren, eskari handia zegoen. Karrera motzagoa zen besteak baino, eta horixe egitea pentsatu nuen.

Zer da lanbide horretan gehien gustatu izan zaizuena?

Agurne Eizagirre: Beharbada umeen freskotasun eta naturaltasuna. Ikasleek gugandik ikasten dute, baina guk ere asko ikasten dugu haiei esker. Oso lan humanoa da, eta ematen baduzu asko jasotzen duzu.

Agustin Mujika: Beti ateratzen dira gauza onak eta txarrak, baina gehienak onak izaten dira. Egia esanda, poz handiak eman dizkit ofizio honek.

Zer izan da zuentzat Alkizako barnetegia?

Agurne Eizagirre: Esperientzia eder bat. Oso lan polita zen. Egiten genituen ekintzak ludikoak ziren. Egonaldien bukaeran pozik joaten ziren denak. Eta

«Beharbada umeen freskotasun eta naturaltasuna izan da ofizioak izan duen gauzarik politena. Ikasleek gugandik ikasten dute, baina guk ere asko ikasten dugu haiei esker. Oso lan humanoa da, eta ematen baduzu asko jasotzen duzu».

Agurne Eizagirre

eguneroko ilusioa eta alaitasuna ere oso politak ziren. Ederra izan da euskararen aldeko jarrera besteei ematea eta zuri gustatzen zaizuna haiei ere zabaltzea.

Agustin Mujika: Barnetegiak eskaintzen dizu beste egoera bat. Eskola beste gauza bat da. Hiru urte pasa nituen Lasarte-Orian, beste urte bat Ormaiztegin, eta haietan eskolako eskema zen dena; matematika ematen nuen, edo egokitzen zena. Irteerak egiten genituen, eta beste hainbat gauza, baina ez nintzen gustura sentitzen eskema horretan. Nahi nuen haurrak beste era batera aritzea, eta barnetegiak hori dauka. Egun osoan zaude haiekin. Tailerrak, eskulanak eta halakoak egiten dira, bazkaldu elkarrekin...

Agurne Eizagirre: Gogoan dut batek galdegin zigula: «Baina pagatu egiten dizuete lan hau egiteagatik?». Guretzat eskumen osagarri moduko bat zen. Euskara, eskolako gai bat izateaz gainera, zerbait berezia zela adierazten genien eta haren aldeko motibazioa transmititzen saiatzen ginen. Azkenean, hizkuntza bat ikasten da nahia eta interesa baldin badaude. Hori da azkenean mugitzen zaituena.

Zuekin batera, Imanol Lizardi aritu zen Alkizan. Haren zer oroitzapen duzue?

Agustin Mujika: Zoragarria zen. oso irekia. Eta oso berezia zen.

Agurne Eizagirre: Taldea iristen zenean, izen guztiak aurrez ikasita izaten zituen. Denbora pasatuko zuen horretan, baina oso buru ona zuen. Hitzaren maisu

zen. Umeengana hurbiltzeko sekulako gaitasuna zuen, segituan poltsikoratzen zituen denak. Artista zen, eta oso inplikatua.

Agustin Mujika: Postu honetan horrelako pertsona mota behar da. Horrelako begirale irekiak behar dira. Antzerkia egiten zuen, gitarra jo, umeekin dantzatu eta lotsa galdu.

Zer egiten zenuten eskola-orduetatik kanpo?

Agurne Eizagirre: Esate baterako, jolasak. Klasetik kanpo ere irakasleekin geratu eta gauza berriak egiteko aukera zegoen. Diskoteka zenuen; gauetan, saltsa. Beraientzako esperientzia oso garrantzitsua zen. Saiatzen ginen hori guztia euskararekin lotu zezaten, pentsa zezaten euskaraz arituta pasatzen zutela ondo. Beraz, ondo pasatuz euskararen alde motibatzea zen helburua. Gehienak erdal girokoak ziren, eta euskara eskolako asignatura bat baino ez zen haientzat. Euskara hizkuntza bizia zela konturatzea, euskaraz aritzen zen jendea bazegoela ikustea inportantea zen. Oso tresna baliagarria dela ohartzen ginen.

Zenbat lagun etortzen ziren, eta zenbat egunerako?

Agurne Eizagirre: Hasieran, hamabi eguneko egonaldiak izaten zirenean, intentsitate handiagokoak izaten ziren egonaldiak. Eta umeek euskara entzuteko denbora gehiago izaten zuten. Gu saiatzen ginen euren artean hazitxo

«Ederra izan da euskararen aldeko jarrera besteei ematea eta zuri gustatzen zaizuna haiei zabaltzea»

Agurne Eizagirre

bat botatzen. Gustura joan zitezen nahi izaten genuen.

Agustin Mujika: 30 lagun inguruko taldeak izaten ziren. Ume batzuek oso hizkuntza maila ona zuten, etxean ere egiten baitzuten. Baina beste batzuek maila kaskarra izaten zuten, eta etxean ez zuten egiten.

Nondik heltzen ziren umeak?

Agurne Eizagirre: Araba, Bizkai eta Gipuzkoako haurrak izaten ziren batez ere. Nafarroatik ere heltzen ziren.

Agustin Mujika: Bizkaitik asko etortzen ziren: Sestao, Barakaldo, Getxo edota Bilbotik. Baina baita, adibidez, Lekeitiotik ere. Bermeotik etorritako taldea edota erdal zonatik etorritakoa ez ziren gauza bera izaten, inondik ere.

Agurne Eizagirre: Gelaka etortzen ziren, beren irakaslearekin. Erabileran eragitea zen helburua; motibazioa landu eta gelan euskararen presentzia handituko zelakoan. Euren ohiturak aldatzen saiatzen ginen.

Urte askoan izan ziren barnetegiak. luzeagoak.

Agurne Eizagirre: 1990ean hasi, eta egon ginen 2017 arte. 2000. urtera arte egiten genituen bi asteko egonaldiak, astelehen batean etorri eta bigarren asteko ostiralera bitartekoak. Baziren beste barnetegi batzuk bost egunekoak, eta horretara jo genuen guk ere, sistema erosoagoa zenez.

«Autobusa etorri orduko bagenekien zer–nolako umeak ziren, bihurriak ote ziren eta abar; hizkuntza maila ere asmatzen genuen. Txanda asko pasa zirenez, berehala konturatzen ginen ezaugarri horiez guztiez».

Agustin Mujika

Zenbat monitore biltzen zineten?

Agustin Mujika: Hemen lau irakasle-monitore ginen. Gu hemen izaten ginen beti. Etortzen ziren umeek beren irakaslea ekartzen zuten. 27 urtean 1.700 lagun izan dira, gutxi gorabehera.

Gerora akordatzen al ziren zuekin?

Agurne Eizagirre: Sentimenduetara jotzen genuenez, bai. Kalean ikusi, eta kasu egiten ziguten.

Agustin Mujika: Legutioko edo Bastidako jendea, esaterako, etorri izan ziren gerora bisitan.

Noiz izaten zen barnetegia?

Agurne Eizagirre: Kurtso garaian izaten zen. Klasean egon beharrean, hona etortzen ziren.

Zein zen errutina?

Agurne Eizagirre: Goizetan, 9:00etatik 13:30 arte egoten ginen, gutxi gorabehera. Eguerdian beren irakaslearekin joaten ziren Otsamendira, bazkaltzera. Eleni zen horko sukaldaria. Bera ere etengabe saiatzen zen jantokian ere euskaraz egin zezaten. Garbitasun lanak ere Eleniren ardura izaten ziren. Hortaz, ikasleek toki guztietan ikusten zuten Eleni, eta harreman handia lortzen zuten.

Nola iritsi zineten Alkizara?

Agustin Mujika: Halako lanetan banenbilenez, proiektu bat idatzi nuen,

«Euskara, eskolako gai bat izateaz gainera, zerbait berezia zela adierazten genien umeei eta haren aldeko motibazioa transmititzen saiatzen ginen»

Agurne Eizagirre

«Umeak kalera atera eta bertakoei ezer galdetzean, askotan erdaraz egiten zuten, eta gu atzetik joaten gintzaizkien; «ez dute erdara ulertzen» esaten genien. Erabat harrituta geratzen ziren».

Agustin Mujika

eta Lakuara joan nintzen hura aurkeztera. Haiek ere horretan ari zirela esan zidaten, eta baiezkoa eman zidaten. Baina hiru urtean ez zuten ezer egin. Gero, Zornotza ondoan ireki zuten barnetegi bat. Hurrengoa Gaztelun zabaldu zuten, eta han beste bizpahiru urtez izan nintzen. Gero hona etorri nintzen. Artean Imanol Lizardi Belauntzan zegoen maisu, eta esan nion «goazen biok». Halaxe, beste barnetegi bat ireki genuen hemen. Eskaintza ona zen, eta giroa ere ona.

Agurne Eizagirre: Ni Lazkaon nengoen, eta etorri nintzen hona eskolara. Bertan oso gustura nengoen, baina ikusi nuen barnetegia, eta zerbait desberdina iruditu zitzaidan. Halaxe animatu nintzen.

Zenbat denbora eman zenuten?

Agustin Mujika: nik 6 urte eman nituen hemen, eta gero Segurara joan nintzen. Han beste urte mordo bat egin nuen. Bizitzera Zaldibiara joan nintzenez, gertuago neukan Segurakoa hau baino. Nik dakidala 5 barnetegi zabaldu ziren garai hartan.

Agurne Eizagirre: Ni jubilatu nintzen justu barnetegia itxi aurreko ikasturtean. Pena izan zen barnetegiaren itxiera.

Baduzue aparteko anekdotarik gogoan?

Agurne Eizagirre: Futbolina eta ping-pong mahaia genituen Alkizan. Donostiako tipo bat etortzen zen futboleko jokalariak aldatzera; erdalduna zen. Behin, hurrena noiz etorriko zen

galdetu genion, eta igande goizean etorriko zela erantzun zigun. Eguna iritsi, eta gu zain eta zain. Astelehenean deitu nion, eta esan zidan: «Estuve en el bar netegi».

Gu hemen itxoiten, eta bestea tabernan. Anekdota polita izaten zen umeak etorri eta jendea euskaraz entzutea. «Aqui todos hablan en vasco», esaten zuten.

Beste behin, zera esan zuen argentinar batek: «Mire, profesor. Si todos sabemos castellano, ¿por qué no hablamos castellano?».

Agustin Mujika: Umeak kalera atera eta bertakoei ezer galdetzean askotan erdaraz egiten zuten, eta gu atzetik joaten gintzaizkien «Ez dute erdara ulertzen» esanez. Erabat harrituta geratzen ziren.

Bestalde, autobusa etorri orduko bagenekien zer-nolako umeak ziren, bihurriak ote ziren eta abar; hizkuntza maila ere asmatzen genuen. Txanda asko pasa zirenez, berehala konturatzen ginen ezaugarri horiez guztiez. Batzuk ez ziren hain onak ikasketan, baina kimika ona zuten. Aldiz, beste batzuek ikasketetan maila ona zuten, baina harreman kaskarra zuten haien artean.

Barnetegi bakoitzak bere maskota omen zeukan.

Agustin Mujika: Gure maskota bizikleta gaineko oilo bat zen, Jaxinta, hemen handia baitzen bizikletaren tradizioa. Asmatu genuen jolas bat egonaldi osoa borobiltzen zuena. Taldeek denen artean lortu behar zuten Jaxintak jartzen zien erronka: bizikleta gainean arituz eta kilometroak eginez, errekorra hautsiko zuen denbora lortzea. Egia esan, talde guztiek hausten zuten errekorra, eta Jaxintak kamisetak oparitzen zizkien. Jaxinta jarduera guztietan zegoen, parte hartzea bultzatzen zuen, baita hizkuntza erabiltzea ere.

Ume haiengan pentsatuz gero, zer datorkizue burura?

Agurne Eizagirre: Eskerrak ematea. Pentsatzen dut hemengo esperientzia baliagarria izango zitzaiela, eta beren eran-edo saiatuko direla seme-alabei euskara irakasten.

Agustin Mujika: Nik herrikoei emango nizkieke eskerrak, hemen egoteko aukera eman zigutelako. Eta irakasleei ere eskerrak emango nizkieke, beren borondatez etorri behar izaten baitzuten, gauak ere bertan pasatzera, aparte ordaindu gabe.

Zuek etxean jaso zenuten euskara?

Agurne Eizagirre: Nik txikitatik dakit. Gurasoak euskaldun peto-petoak ziren. Zorte ikaragarria izan nuen. Nire ama alfabetatua zen, eta ikastola zabaldu aurretik umeei euskara irakasten aritzen zen etxean. Oso euskaltzalea zen. Gure garaian eskola erdaraz zen, eta lau urterekin amak Xabiertxo liburua pasa zidan; harekin irakatsi zidan euskaraz irakurtzen eta idazten. Horregatik, euskara nirea da, eta oso eroso sentitzen naiz euskaraz.

Agustin Mujika: Niri ez zidaten euskara erakutsi. Aita Aietekoa zen eta ama Elantxobekoa. Haien artean ez ziren euskaraz aritzen, etxean oso gutxi erabiltzen zen. Jendea euskaraz zuzentzen zitzaidanean, nik ezin izaten nuen erantzun, eta lotsa izaten nuen beti. Gero ikasten hasi nintzen, eta euskara

taldean ere sartu nintzen Lasarten. Urte asko egin nituen bertan, euskara defendatzen.

Erraza egin zaizue euskara transmititzea?

Agurne Eizagirre: Zuri gustatzen zaizun zerbait erakusten baduzu, erraz transmititzen duzu. Alde horretatik zorte handia izan dut.

Agustin Mujika: Nik bi aldetatik bizi izan dut euskara: batetik, lanbide izan dudan neurrian, eta bestetik, militante bezala. Hain zuzen, horixe da gaur egun falta zaiguna.

Jendeak ulertzen du, baina gero egunerokoan ez da erabiltzen. Lasarten oso euskaldun gutxi zegoen. Michelin enpresa zela eta, jende asko etorri zen eta euskara ez zen existitzen ia. Gaur egun Lasarteko edozein gaztek daki euskaraz. Orain lasai asko eska dezakezu zerbait euskaraz. Lehen ez.

«Eskerrak eman nahiko nizkieke herrikoei, hemen egoteko aukera eman zigutelako. Eta irakasleei ere eskerrak emango nizkieke, beren borondatez etorri behar izaten baitzuten, gauak ere bertan pasatzera, aparte ordaindu gabe».

Agustin Mujika



97

Liburu honek 1976tik 2017ra bitartean Alkizan euskara ikasteko garatu zen egitasmoaren kronika egiten du protagonisten ahotsa eta oroimenak oinarri hartuta

ALKIZAKO UDALA

GIPUZKOA
Foru Aldundia